

*Karlos Elgezuaren biografiaren ikusmolde hau, protagonistaren ikasle eta dis-
zipulua den Jose Luis Cobreros Morales eskultoreak prestatu du.*

Esta versión de la AUTOBIOGRAFIA de Carlos Elguezúa ha sido preparada
por el escultor José Luis Cobreros Morales, discípulo y amigo del protagonista.

Azaleko Argazkia:
Fotografía Portada:
Fernando Larruquert.

© **Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián**
Aurrezki Kutxa Munizipala
Depósito legal: SS 342/87
Núm. Reg. Edit.: 661/68

Editado por:
Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones (RSBAP)
Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal

Impreso por
GRAFICAS TAMAYO, San Sebastián



Editado
por

DONOSTIAKO AURREZKI-KUTXA MUNIZIPALA - CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL

ren
argitalpena

Kultur Ekintza

Obra Cultural

Ataun, 1984ko Azaroaren 4an
Elgezua Karlos jaunari,
Donostia

Nire jaun txit miretsia:

«Mi pequeña Autobiografía» izeneko zure liburua irakurtzeko atsegina izan dut. Irakurraldi horretan oso mementu onak pasa ditut, ezagutu nituen gertakari, leku eta pertsonak gogoratu.

Zure bizieran oso ibilbide interesgarria aurkitzen dugu; eta bertan agertzen diren arazoak eta soluziobideak oso ikaskai probetxagarri gerta dakizkiokel liburua irakurtzeko zoria izan duen nornahiri. Zuri esker, oraindik ere beren bizia gizatasun sendoan bideratzen duten pertsonak badaudela ikusi dut, baita kristautasun ereduan ere. Zorionak, beraz. Zuk bederen ez daukazu heriotzaren aurrean zertan dardar eginik.

Buhotzez agurtzen zaitu eta zure zerbitzuko gelditzen.

Ataun, 4 de Noviembre de 1984
Señor Don Carlos de Elgezua
San Sebastián

Muy admirado señor mio:

He tenido el gusto de leer su libro «Mi pequeña Autobiografía». En su lectura he pasado ratos muy agradables, recordando sucesos, lugares y personas que conocí. En su obra asistimos a un proceso de vida interesante con problemas y soluciones que son una lección sumamente provechosa para cualquiera que tenga la suerte de leer este libro. Gracias a Vd. que me ha mostrado que hay todavía hombres que basan su vida en un humanismo sólido y en un Cristianismo ejemplar. Sea enhorabuena ¡usted no puede temblar ante la muerte!

Le saluda cordialmente su atto. S.S.



PROLOGO

Pocas empresas pueden ser tan útiles en el campo del Arte, como la divulgación de la vida y la obra de un artista.

Se puede decir, que el nacer vasco y artista, es grande, pero es nacer con poca fortuna. Nadie como el artista recibió del cielo tan portentosas aptitudes para captar la vida que palpita en su entorno, pero sin duda un hado maligno le condena como nefasto regalo, a la pobreza, a la obscuridad y al olvido después de la muerte.

A esto contribuye esa tendencia del carácter vasco a reconcentrarse en sí mismo, no sabemos si por humildad o por orgullo; ese odio a lo espectacular y pretencioso, esa incapacidad para la propaganda en la cual otros pueblos se muestran habilísimos, esa total falta en suma de «chauvinismo».

Carlos Elguezúa no es una excepción, su obra no impacta, sino convence, no es espectacular, sino sincera y precisa.

En la vida de los artistas hay siempre un momento revelador, trascendental que marca indefectiblemente su futura trayectoria.

Este instante, puede ser el de un «Flash» deslumbrante ante una obra artística que conmueve hasta lo más íntimo o puede ser un primer trabajo que inclina la balanza de la afición, hacia un derrotero insoslayable.

Es todavía muy joven Elguezúa, cuando siente esa llamada, a la que se entrega con una disponibilidad total.

Es consciente que el binomio artesano-artista es inseparable, es más diríamos, constituye un único núcleo o ente... no en vano... «Cuando la inspiración, se asienta en la reflexión (que es el saber... la técnica) eclosiona indefectiblemente Arte».

Elguezúa para llegar al fin de la obra artística pone todos los medios debidos y conocidos a su alcance. Domina estructuras, modelado, vaciado, talla en madera, talla en piedra... No hay huecos o rendijas en su buen hacer donde logre colarse el aburguesamiento, no en vano se puede decir que además de conocer a fondo su oficio es un artista.

El hombre se encuentra entre dos fuerzas contrarias que le solicitan: una es la belleza de la serenidad absoluta, la otra la fascinación del abismo. La tensión, entre esas dos fuerzas hace saltar la chispa del genio creador.

Al abismo se asomaron Goya, Picasso, Stravinsky, Neruda. En busca, de la serenidad absoluta, se consumó el Arte de Fidias, Velázquez, Gregorio Fernández, Machado, Bach.

El escultor que recela del abismo, se entrega a la belleza de la serenidad absoluta y rozado por el ala del genio, ha conseguido a veces el objetivo supremo de la creación artística: el placer puro del arte y la comunicación y sintonía con los demás.

Elguezúa, firme en el zarandeo de ismos y modas, ha sido capaz de transmitir la belleza aprehendida por una sensibilidad equilibrada y serena que le viene de su propia austeridad euskérica, sus hondas raíces vascas.

Vivió la Bohemia en sus años parisinos pero sin dejarse dominar por su vorágine destructora: fue dándole recortes a sus envites, que causaron extrañeza y admiración en sus condiscípulos.

Carlos Elguezúa no es escultor de otra época, sino que está ahí en nuestra sociedad descoyuntada contradictoria, confusa, violenta, salvaje y atrayente, como tal vez, no lo fue ninguna.

Es un escultor en vanguardia, no de vanguardia y son los hombres de hoy plasmados en más de cien bustos los que el artista retrata.

Conocí a Elguezúa de una manera fortuita pero entrañable porque ya me había dicho mi padre (perdón por la alusión personal), que contactara con él, pero no había conseguido hacerlo.

El escultor retirado de toda actividad creadora desde su enfermedad vive alejado de su villa-estudio de Astigarraga, en un piso de la capital donostiarra.

La reciprocidad en simpatía se produjo al instante (hoy diríamos —empatía—) pues existía una común conjunción de sentimientos artísticos.

— ... ¿Cómo es su Arte o cómo concibe la obra Artística?

— La virtud más importante en el Artista es la sinceridad el ser siempre fiel a uno mismo a su propia manera de sentir. Los artistas, son como los pájaros que cada uno canta a su manera y todas son respetables.

— ¿Trabaja Ud. siempre con modelo?. Se entiende al hacer no retratos, sino figuras representativas de la étnica vasca.

— Se puede decir que aunque el modelo está siempre delante nunca trabajo con modelo, estudio sólo con él. No me gusta hacer experimentos o invenciones de nuevos símbolos, no hago lo aprendido sino expreso lo sentido.

— ¿No le han achacado alguna vez el ser en sus esculturas fotográfico?

— Cuando me han dicho, que soy un escultor fotográfico, me he sonreído pero interiormente me he llenado de satisfacción y orgullo. Es un reconocimiento

implícito al parecido y primer, e indispensable, paso a todo escultor realista, ya vendrá luego una síntesis en la que se decanten contornos planos y aristas y quede sólo la rotundidad del efecto.

Además ¿acaso no fue Velázquez, el primer genial fotógrafo, que se adelantó siglos al invento? ¿No es un prodigio de composición las Meninas, dónde fuera del enfoque de la cabecita de la niña van esfumándose las figuras a medida que se alejan del centro visual? Tuvo que llegar el rigor y frialdad de la cámara fotográfica para dar la razón al genial artista que fue el primero que pintó «con los ojos de la cara, no con los de la razón», es decir, que pintó las cosas como las vemos no como sabemos que son.

En mi reflexión personal cabe el preguntarse:

— ¿Porqué ocuparse de la figura de Carlos Elguezúa?

— Porque su Arte, por su sinceridad, por su buen hacer, por su verdad tiene entidad propia brillo y calidad de obra fecunda, porque su Arte es muy suyo muy personal, muy Elguezúa y sería mi deseo que este ligero esbozo sobre la vida y obra de un artista nuestro vasco, fuera un paso para que ambas no se pierdan en el anonimato.

Y termino con unas palabras que anteceden al prólogo de las memorias de Macho.

...Y guardaré mis torturas en el interior de los bloques de piedra que labro... y cuando pasen los siglos y el sol calcine estos bloques incomprensibles para muchos y los vientos muerdan los grandes planos... entonces sólo entonces, estas obras serán lo que yo pensé...

El tiempo ha de ser el gran colaborador de los escultores.

J.L. Cobreros Morales

GAI ZERRENDA

1.— **SARRERA**

2.— **BIOGRAFIA**

- a) *Izakera.*
- b) *Biziera.*
- c) *Gorazarreak.*

3.— **ELGEZUA ETA BERE GARAICO ESKULTURAREKIKO LOTURA**

4.— **ELGEZUAREN IRUDIGINTZAREN AROAK**

5.— **ONDORIO GISA**

6.— **LAN-ZERRENDA**

- a) *Lan-zerrenda arrazoitua.*
- b) *Argazkiak.*

SARRERA GISA

Helburu hau dute lerro hauek: gure garaikidea den eskultore baten biziera eta obra argitara aldatzea orain dauden ilunpetik; eta horrela, eredutzat har daitekeen ibilibide hori, ondoko artista-belaunentzat gidari gertatu ahal izatea.

Berriro ere gauzatu da kasu honetan atsotitz hits hori: inor ez dela profeta bere herrian.

Elgezua eta Lasuen Karlos eskultorea, ikusmolde zehatzekoa, modelagintza errazekoa, ez dute bere garaikideek ezagutzen. Hain zuzen ere berez apala delako, izakeraz sinplea delako, oso jende gutxik, inguruko bere lagunek ez beste ezagutzen dute. Nahiz Artegintzara osoki jaulkia egon, eta nahiz etengabe bere burua gainditzen saiatu bada ere eguneroko ahalegin finean.

Nolanhiko pertsonakeriaren etsaia izanik, eta erakusketekiko eta elkarrizketekiko uzkur, etab. ...bake-ingurunea lortu ala, luzaz joranez bilatua, gero eta arte gardenagoa eta osoagoa lortu du Elgezuak Astigarragako bere estudioan.

Esana dugu jadanik: gizon apala da Elgezua, hitzetan urri baina egintzatan ugari. Bere bizieraren ardatzat hartu zuen bere eskultore-deia; eta ez dakigu zer den gehienik miretsi behar duguna: nekez, iraupenez eta formaren jabetzetik at lortzen ez den alorraren gaintasuna, batetik; ala horretarako behar den irmotasuna, eskultore gisa pentsatutako eta mamitutako obra hori egiteko, baztertu behar baita artetik aparte erants dakiozkeen konnotazioak oro.

BIOGRAFIA

Haurtzaroa - Nerabezaroa

Eibarren jaio zen 1898ko Azaroaren 3an, bere gurasoak bizkaitarrak zituelarik. Aita, Mallabikoa. Ama, berriz, Zaldibarkoa, Arikitxako zubiaren ondokoa.

Jaio eta biharamonean —garai hartako ohitura jarraituz— San Andresen parrokian bataiatu zuten, hain zuzen ere San Karlos Borromeoren jaia ospatzen zelarik. Hain zuzen ere, egun horretantxe bataiatu zuten bertan, hogeita-bi urte lehenago, berorren ama, Maria Karlota izena jarri zitzaizolarik.

Olabeagako okinak egin ohi zuen ogiaren banaketa, eta horretarako karro bat erabiltzen zuen. Hots, horretxek ekarri zion istripu bat; eta hain zuzen ere Elgezuaren artegintza bera arriskutan jarri zuen. Hamaika engranek osatzen zuen errestra trabatu zen, eta Karlos haurraren eskua harrapatu. Sistema hura deabrutua zen, askatzen ezinago zaila. Karlos artean garrasika ari; eta, mina nolazpait ematzekotan, Ibarrekruzeko iturrira eraman zuten. Zorionez hura ez zen izualditik aurrera joan.

Lasalle-ko Ikastetxean

Lasalletar anaien etorrerarekin batera, iskilugintzaren hiriburuko ikastetxe berrian sartu zuen amak. Zazpi urte zituen orduan Elgezuak.

Eskolak gaztelaniaz eta frantsesez ematen ziren; bertako hizkuntza, euskara alegia, erabat baztertuta uzten zelarik. Beharbada bi hizkuntza nagusi horien ikasketarako euskara trabagarri izan daitekeelakoan.

Ez zuen Elgezuak, halere, bere amaihizkuntza galdu; etxean euskaraz mintzo baitziren senitartekoak.

Ikastaldiaren amaiera zela-ta, festa bat antolatu zen; eta irakasleak Elgezua hautatu zuen. Gurasoekiko errespetua eta obeditzea zuen mintzagai ipuin labur baten bidez.

Irmotasun espartanoz baliaturik, ezarian erakutsi zion gazteari behar zuen guztia: ahotsaren doinua, kinuak, besoen mogimendua; eta, hitz batez, lehen-go garaietan, deklamazioari erantsi ohi zitzaion espantu hura guztia.

Igandeetako soinekoa jantzi, behin eta berriz orraztu... Ondo zihoan dena. Baina gure hizlaria publikoak errezipitakerakoan, eta txaloa ozen bihurtzean, dardarrean hasi zitzaizkion bi zangoak gure mutilari; eta adimena lausotu erabat, eta ezin txintik atera. Txalokada, horretara, barre-algara zaratatsu bihurtu zitzaion; eta Elgezuak, horrela, guztiz lotsaturik, tauladotik jaitsi behar izan zuen.

Kultur aurrerapena

Eibartarren bultzamena industri berri eta gehiagoren antolaketan agertzen zen. Gero eta gehiago ziren, eta baserrietatik etorritako pertsonak abiarazten zituzten maiz. Eragile berbera denongan: entpresak sarotzeko eta gidatzeko berezko doaiak.

Elgezuak, orduan, ikastetxeko lanorduetatik at, Jose Felipe Artamendik eta Toribio Zulaikak ematen zituzten marrazketa-eskoletan parte hartzen zuen. Berarengan sortu zen ikasi-nahia, ordea, nekez ema zezaketen haiek; eta, osagarri gisa, Jazinto Olabek ematen zituen gau-eskoletara joaten hasi zen.

Musika giroa

Oiz-mendiko inguruetan, eta Mallabiko auzoan, zutik daude oraindik, sakanaturik, baserri batzu. Horietako bati Elgetzu deritzo; eta handik dator Elgezua deitura.

Amaren aldetik, Zelaia baserria zen jaiolekua. Etxe hau txiroturik eta xahuririk gelditua zen karlista zergengatik; hileru gari-keta aldakaitz bat ematera behartzen baitzuten. Artatxikia zen oinarrizko janaria; eta ogi zuria egun berezi-tarako gordetzen zen.

Karlosen aitak musika-jaiera handia senditzen zuen; eta, txikitan, danborra jo zuen auzoz auzo, dultzainaria laguntzen zuelarik.

Halako batez, Abadiñon jo ondoren, Durangora joan ziren; eta han Karlos Setimo Erregegaiaren sarrera hanpurusa ikusi zuten, zaldi zuri dirdaitso bat itzegorik, eta bere Buruzagitza osoak inguratzen zuelarik.

Beharrek familia hestutu, eta musikari-gai gazteak haroztegiko apendizgoa hasi zuen. Halaz ere, zaletasunak eraginik, bere buruz moldatu zuen gitarra bat; eta jole iaioa izatera heldu zen.

Giro horretan, aitaren zaletasuna jaso zuen Karlosek. Ez zuen Udal-Bandaren kontzerturik batere galtzen; eta halako batez Marrazkilaria ala Musikaria izango ote zen zalantzak harrapatu zuen.

Gasteiz

Aitaren aginduz, eta lanbide hura ikastekotan, harotzaren mahaia zeukan zai.

Egun gogorak haiek. Ordu luzetan barrena ari behar izaten zuen marrusketan, arrabota, mailua eta zizelaren manaiatzen.

Baina beste helbururik dago Karlosen ametsetan.

12 urte zituenean, soinu bat erosi zuen Donostian 75 pezetatan. Lanordue-tatik kanpora, eta lagunak baloiarekin ostikoka ari ziren bitartean, Elgezua auto-didaktak bere soinuarekin pasatzen zituen ordu luzeak, kantak eta modako pasodobleak jotzen.

Konturatu egin zen aita artean, arte-erredizari bultzada berri bat emateko-tan, zizelari bat beharko zuela.

Eta, hori dela-ta, betiko bere jorana betetzeko parada ikusi zuen. Alegia, marraztu, nola edo hala marraztu, eta, nolana ere, luzaz, ordu askotan zehar...

Aitak bezala, Roca Anaien haroztegian ikasi zuen lanbidea, Gasteizko San Antonio kalean; hara jo baitzuten zizelari maisu baten bila bai aitak eta bai semeak.

Felipe Larrinoa gertatu zen horretan. Lantegi bat zuen honek Campillo delakoan, Sierras Alavesas-en ondoan, eta Katedralearen ondo-ondoan.

Bi langile espezializatu zeuzkan han. Bera zahar xamarra izanik, areago hartzen zituen bere gain udal-arazoak, zizelagintza baino; errepublikar zinegotzia baitzen, eta Gasteizko Udaleko sindikoa.

Ikasle-aprendizaren asmoa atsegin gertatu; eta hilean 15 pezeta ordainduko zitzaiola erabaki zen. Irakaskuntza mailan hori; baina egingo zuen lan guztia, ikaslearen eskuetan utziko zelarik.

Poz handiko urteak izan ziren haiek, eta geroko barne-deia mamituz joan zen.

Denbora laburraren buruan, zurak ez zuen izkutukirik beretzat. Zizelaren kolpeetan ezpalak zehazki haizatzen ziren, eta zuhurki zihoan bera zur ikutugabeen barrena.

Adabegi bakoitzean ahal denik ondorio onena lortzen ikasi zuen berehala; baita begi-xixta batez enbor batetik hoherena nola atera zitekeen somatzen. Irakasleak, horrez gain, aldakortasuna eman zion, estilo batetik bestera aisa aldatzeko doaia. Gotikotik hasi, eta errenazimendura. Eta honetatik, gero, Louis XV izeneko errediza miretsietara.

Ostatua Cuchilleria kalean aurkitu zuen, lantegitik hurbil. Seme-alabarik gabeko familia bat zen hura; eta seña Manuela izeneko etxekandereak, entretenigarri, litxarrerri eta gauza merketxoak saltzen zituen dendatxo bat zeukan, bidenabar sukaldari bikaina izanik.

Ostegunero ostegunero, hirira azaltzen zen «Elgeta errekadistia», Eibarkoa. Bi mandok tiratzen zuten karroaz egiten zuen ibilbidea: Eibar-Gasteiz; eta adarra joaz honela iragartzen zuen bere etorrera:

*«Tropari tropa
tropa batallón
la camisa rota
medio pantalón.»*

Hori entzutean, tropelka inguratzen zitzaion jendea bere mandatuekin. Eta hilabetean Elgezua gazteak egindako lanak eramaten zituen Eibarra, aita gero eta poziago jarriz; berehala erreparatzen baitzuen semeak sekulako aurrerape-nak egiten zituela.

Urte bukaeran deitu egin zuen aitak. Ikaskuntza aski izango zelakoan, eta lan hari eusteko lilurak moztuz, bere lanbidean hasi beharra markatu zion.

Eskulan eta arteak

Soldauskarako urteak iristean, araubidezko zozketa egin zen, eta kuotako soldadu egin zuten. Alegia, bi mila pezeta ordainduz gero, soldauska non egingo zuen aukeratzeko eskubidea aitortzen zitzaion.

Garellano-ko erregimendua hautatu zuen, beraz, Bilbon; baina sakonean besterik zegoen: Esku eta Arte Lanen Eskola, alegia.

Kasernan beharrezko baimena lortuta, eskoletara 7etatik 9ak arte joateko baimena eman zioten.

Eta orduantxe finkatu zen betirako eskultore handiaren ibilbide nekagaitza.

Modelagintzari buruz, Hijinio Basterrarekin jarri zen harremanetan; eta honek zuzendu zizkion ikasketak. Marrazketaren alorrean, Federiko Saezekin aritu zen; margoketan, Larroquerekin; eta oraindik ere hutsunetxo bat aurkitu zuen, eta bere euskara landu zuen, gramatika Ebaristo Bustintzarengandik ikasiz, idazle ezaguna, «Kirikiño» gaitzizenez ospetsua.

Atsedenaldirik ez Elgezuaren eginkizunean. Naturaletikako modelaketa, mोगimenduaren marrazketa, eskultura-zizelagintza... Elkarriz darraizkio lanak, eta langintzaren zehaztasuna eta segurantzia gora doaz.

Afrika

Bere lanean bero-bero eta guztiz harrapaturik zegoenean, Annual-go deskalabroa gertatu zen Afrikan, 1921an.

Mobilizazio orokorra gertatu; eta tarrapataka utzi behar izan zituen bere arte-lanak oro, Erregimendura bilduz. Madrilen barrena martxosoko desfile batzu egin ondoren, eta Antequeran zenbait egun pasata, Malaga aldera abiatu zen. Baina espedizioa moztuta gelditu zen, eta bertan gelditu behar izan zuen, kasernaturik.

Artista Gazteek

Arteen sustaketan, urte biz behin antolatzen zuen Gipuzkoako Diputazioak Artista Gazteen Txapelketa.

Bere aitaren irudiaz aurkeztea erabaki zuen. IV. Erakusketa zen ordukoa, 1923ko Irailekoa. Mila pezetaz hornitua zen lehenengo saria irabazi zuen. VII.ean bi obra aurkeztu zituen, 1926an; berriro ere I. Saria irabaziz. Eta bide beretik VIII. Txapelketan, 1928ko Iraila-Urrikoan, hartan zazpi lan aurkeztuz. Saria 1.500 pezetaz emendatua zen, eta hau eragile bikaina izan zen zaletasuna azkartzeko.

Inoiz baino zinkiago deliberaturik, bere ikaskuntza Bilbon jarraitzea erabaki zuen. Bizkaiko hiriburura itzuli zen horrela, eta Urrutia eta Madariaga dekora-tzaileen lantegian sartu zen; horrela igeltsoaren erabilpenaz jabetu, eta bidena-bar soldatatzeko bat irabaztekoan. Eskolara joateari eutsi zion; eta han urte bu-kaeran, eskulturako lehenengo saria irabazi zuen.

Harrigarriro, Txapelketetako eskultura-sariak beti izaten ziren pintura-sariak baino apalagoak. Eta, hortaz, bere buruari galdetzen zion Elgezuak: Arte exka-xagoa ote da hau, beraz, beste hori baino? Horrez gain, eta materialeen kostua-ren aldetik, eskulturgintza da galestiena.

Karlosen aurrerapenak ikusita, sinetsi egin zuen aitak berorren barne-deiaren fintasunean. Artisau-lanaren betebeharra utzi zuen horrela alde batera, eta e-txen, ganbaran, estudio bat prestatu zion.

Aro oparoa hura; eta eskabidezko irudiak eta bustoak mamituz doaz.

Lapitz bikaina da Ziriako Agirre Doktoarearena. Eibarko Antituberkuloso de-lakoaren sortzaile, bertako jardinetarako prestatu zuen. Erregetiarra da zinez buru hori, eta erromatar enperadoreenak gogorazten ditu; baina beti ere modelakuntza ihar berean, eta pertsonaren ontasuna ageri delarik.

«Monja Alférez» delakoaren irudian —Erausoko Katalin— harroki heltzen du ezpata donostiarrak. Diputazioak eskatu zion lan hau Elgezuari, Sevillako Nazio-Arteko Erakusketarako; eta han Gipuzkoarentzako Etxe-Pabelloian paratu zuten.

Enkarguak elkarki darraizkio.

Parise

Eta bildutako txanponez, bere urrezko ametsa burutuko...

Haren zai dago Parisen Leon Sarasketa adiskide mina, lehenengo urratsetan laguntzeko prest. Hiri hartara heltzen ziren guztien gidari bihurtua zen. Ho-rrrez gain, zetorrena eibartarra izanez gero, hainbat hobe. Bai Leonek, eta bai be-ronen emazteak, Maritxuk, egin-ahalak egiten zituzten Karlosen egonaldia goxatzeko. Honek, nolabaiteko ordainetan, erretratu zoragarri bat egin zion.

Bastillaren ondoan bizi zen zarauztar famelia batekin jarri zuen orduan ha-rremanetan Leonek. Senitarteko bat bezalaxe hartu zuen orduan Manolo Alda-baldetrekuk eta Maritxu beronen emazteak. Afrikako gerraren ondorioz profu-go gisa hanka eginik, haroztegi bat zeukan.

Indultu bat baliatuz, Zarautza itzuli zen; eta Elgezuak orduan hotel bateko gela bat alogeratu behar izan zuen.

Inazio Zuloaga bere herrikidea agurtzera joan zen orduan; eta honengan, nahiz jator agertu, halako mesfidantza apurra nabaitu uste izan zuen Elgezuak.

Diru-eskabideren bat ote datorkion beldur, agian.

Ikustamenaren arrazoia Karlosek azaltzean, Zuloagak aurpegia aldatu, eta aholku hau eman zion: Parisen badira artistak erruz, milaka, garaitu ezinean! Ez maiz joan Montmartreko kafeetara! Ezer egin gabe joango zaizkizu orduak, sasi-jakintsu horiekiko elkarrizketa alferretan.

Marraztu egin behar duzu, marraztu eta marraztu —esaten zion maisuak etengabe.

Garai hartan jatortasun kutsua dario Pariseri, eta bihozkor gertatzen da. Frantses libera apal ganbiatzen da; eta gure diruaren arauera, errealeko bat balio zuen. Bizia, beraz, doarik dago. Eta askatasuna osoa da.

Erraztasuna eta segurantzia lortzekotan, marrazketa, eskultura eta krokisa ikasten du Akademietan. Sartzetakoan, txartel mordoska baten bidez, eta ordu finkaturik gabe, sartu egin zitekeen, eta nahi bezain luzaroan bertan egon gero. Modeloek hamar minuturo aldatzen zuten jarrera.

Paristar bizimodua eta ohiturak piskanaka doaz sartuz Elgezuaren ariman: sakonki barnatzen zaizkio Erakustokietako eta Plaza nagusietako edertasunak, eta Arteak praktikatzeko dauden erraztasunak.

Auzo latino

Gazteria ikaslearen biltokia zen hura, eta hantxe gertatu zitzaion gaztetango pasadizu bat.

Erlijio-sinesmen handikoa, eta Zuloaga herrikide famatuaren jarraitzaile, erretiratu xamar bizi zen, biltzarretatik eta jolaslekuetatik at.

Ez zen jokabide hau garai hartan maiz gertatzen; eta azkenean harridura sortu zuen euskaldun lagunaren artean. Bitxitzat hartzen zuten bizimodu hura, batez ere bere adinean eta lanbidean; eta frogatzea erabaki zuten.

Arrats batez Bastillatik itzulitxo bat egitera gomiatu zuten bi lagunek; han, esan ziotenez, guztiz ondo pasatzen baitzen... ondo benetan.

Hango kaleska ilun haletako batetik abiatu ziren horretan; eta gure artistak orduan zerbait prestatzen ari zitzaizkiola somatu zuen. Ate baten atalburuan, urrunean, argi gorri bat ageri zen. Atea jo, eta etxekandereak areto zabal batera pasarazi. Han neska gazte batzu zeuden, beren batak ez oso ondo hertsirik xarmak ageri zirelarik. Artean «Valencia» pasodoblea errepikatzen zuen pianistak, une hartan Josefina Baker-ek modan jarria.

Pankarta batetan hau irakur zitekeen: prezioa, 5 libera. Bost errealeko, ale-gia, kidetza kontutan hartuz.

Hetairetako batak orduan gure gizonarengana hurbildu, eta eztiki, leunki, begitartea laztandu zion.

Elgezuak orduan halako ideia berezi bat izan zuen:

«Aizu, emakume, aizuz: euskeraz ez badakizu, nirekin ez daukazu ezer egirik» (euskaraz esana, jakina).

Erantzun hori dela-ta, zausk emakume hura gelditu; eta begiak plateren taimainan jarririk, hau pentsatuko zuen: zein galaxiatatik etorri ote da tipo hau?

Eta horretantxe amaitu ziren amodio oldar haiek.

Montmartre, auzo latinoa, Saint Germain-des-Prés, Notre-Dame, kafeetako Parisa, artistena eta intelektualena, modaren Parisa, denboratik at, azkengabea, arraza eta kolore guztien erakarle.

1925an bere jaioterrira itzultzean, heldutasun beteko aroa hasi zen harentzat.

Erabat langilea den bere herrian, mamitu egin nahi dute handikiek, beren irudia irauin eraziz. Industri leinuen sortzaileak dira.

Elkarri darraizkio eskaerak. Itxura orbangabeak bilatzen ditu eskultoreak. Berrietan bizia azaltzea nahi du, gorputzetan biziaren arnasa ager dadila, izpirituaren gogarteak nabari daitezela... eta xamurtasunez eta xinpletasunez itxura plastiko ezin irmoagoak gauzatzen ditu. Estiloa azkar eta xinplea du, egitua eta ezinago errealista. Zenbait aldiz organoen edo zimurren modelagintzan goxatzen da artista; plano indartsutan, bestetan, erretratatuaren nortasuna gainera iristen duelarik.

Beste zenbait aldiz bilduma bat bilatzen du, funtsezkoa; hegiak nahasiz eta plano nagusiak eskematiko eginez.

Arrate

Kaxko batean dago Arrateko Ama-Birjinaren Eliza, Urko eta Kalamuaren ondoan, Markinako ibarra gainditzen duelarik, eta, Elgoibar aldera, San Lorenzoko ikuspegi ederra dagoelarik. Talai gaitza dirudi Gurutze handiak, eta esperantza, projektu eta ezkongaitako kantua da.

Ama Birjinaren irudiaren birmoldaketa dela-ta, inguru bikain hartan bizitzera deitu zuten gure artista. Eta hantxe egon zen lanean zenbait hilabetez.

Berehala erreparatu zuen Elgezuak beste gauza bat: denboraren joanaz baino, borondate onez baino inolako eskolarik gabe herrenkadan egindako birmoldaketen ilarak hondatua dagoela irudia.

Elizako sakristian lantegi-estudio bat prestatu zuen Elgezuak; eta bertako kapellaua den Pedro Gorostidik bere burua eskaini zion edozertarako.

Adiskidetasun fina sortu zen bi gizonen artean. Atsedean aldietan, ibilaldi osasungarriak egiten zituzten biek inguruko pagadi eta harizti zoragarrien artean.

Irudiaren koroaketa kanonikoa hurbil zegoenean, Polikarpo Larrañagak burutazio bat izan zuen: puntillaz eta apaingarriz egindako soineko zaharra eraztea, eta... hura sorpresa! XII. mendeko taila bat agertu zen azpian.

Haurren burua aparte zegoen Amaren iruditik, horrela, oholtxo baten gainean pausaturik, enkajeen eta gainerakoek gainetik atera ahal zedin.

*Nola ote liteke gure arbasoek egindako gauza zoragarri hura estalirik ego-
tea, gure asaben sentikortasuna edo kultura izkutatuz?*

*Lana bukatuta, bere estudiora itzuli zen Elgezua; eta orduan Bernardo Eze-
narro, Lan-Eskolaren sortzaile eta sustatzaile izandako puntuzkoaren burua egi-
teko enkargua hartu zuen Elgoibarko Udaletik.*

*Ondoren, Kepa Enbeita bertsolari famatuaren erretratua egiteko agindua jaso
zuen. «Urretxindorra»z ari gara, jakina, izendapen olerkitsuaren arauera, Biz-
kaiko Muxikan jaioa. Beronen baserria, elkar-suskibaketaz, erosi zuen Argenti-
nako euskaldunen Laurak-Bat Elkarteak; eta Enbeita Kepa handiaren bertsoak
haraino iritsi ziren, urruti-minez, lurralde urrun haietaraino.*

*Elakideek gonbidaturik, langileen aldeko mitin batetan parte hartzera, Eiba-
rra joan zen Enbeita. Berak aitortu zuenez, ez zen «berotzen», ezin, eta eztarria
lehortzen hasi zitzaion, normalean ahots fin-fina aterarazten zuen eztarri huraxe.*

*Garagardo baso bat eskatu zien entzuleei; eta lehenengo zurrutadatik, se-
kulako etorria heldu zitzaion; jendarte hura piztuz. Honek orduan moztu egiten
zuen bere berotasunean bertsoen jarioa.*

*Soin-erdikoa da Elgezuaren erretratua, eta bere jarrera ezagun horretan ageri
da... esku bat txalekoaren poltsikuan, eta bestea txaketan; hain zuzen ere, ber-
tsotan hasteko unean bertan.*

*Imajina bikaina da; eta unea ere, ezagutu zutenek ongi dakitenez, ezin ze-
hazkiago harrapatu.*

Azkoitia

*Euskaldun ona denez, Elgezua oso frontoi-zalea da. Garai hartan, esku hu-
tsezko espezialitatean bazeuden benetako txapeldunak: Mondragonés, Atano-
tarren leinua, Zabala, Txapasta, Txikuri, Kirru, eta abar luze bat.*

*Atano III.ak jokatzen zuen bakoitzean, Eibarko frontoia mukurru betetzen
zen, eta pelota-gertakaria ahantz-ezinezko bihurtzen zen. Horixe gertatu zen Ata-
no II eta III.ak, Zabala elgoibartarraren eta Txapasta eibartarraren kontra jokatu
zutenean. Azken aurreko puntuan berdindurik, Atano III.ak egin zuen sakea; eta
itzuli ezinezko pelotakada bota zuen; sekulako zalapartak erantzun zuen publi-
koaren aldetik, eta kantxara txaketak eta gainerako jazkiak erori ziren.*

*Bi maisuak, nor bere alorrean, adiskidetu egin ziren oso. Egiatzko neurrian
eta soin osoz bere erretratua egin zuenean, beren arteko adiskidetasuna sen-
dotzeko aukera izan zuten.*

Madriile

*Bilbotar famelia batek Fedearen Kristoren kopia bat izan nahi zuen, Madriile-
ko Montera kaleko San Luisen elizan dagoenarena; eta enkargua Elgezuari eman
zitzaion. Honek, orduan, Espainiako hiriburura joatera behartu zuen.*

Ikastetxeko ikaskide bat topatu zuen han, Luis Ormaetxea. Berau Argentinan bizi zen, eta negoziotarako etorria zen. Eta hauxe esan zion: beste euskal artista bat aurkeztu nahi nizuke. Gure ostatu berean dago, Sevillarako bidean. Norberto Almandoz-ez ari zen; Sevillako katedraleko kalonjea.

Musikariak eta eskultoreak adiskidetasun joria lortu zuten.

Hara zergatik joan den ez baitzaio ahazten, eliza hutsik dagoenean apuntu eta zirriborro pila hartzen du, taila ikuspuntu guztietatik begiratzuz.

Azkoitira, bere lantegira, itzultzean, fresko dago oraindik irudia, eta zur polikromatutan modelagintza hasi, gero birmoldatzekoa.

Hango eta ordukoxea da, era berean, Mendigoizalearen irudi liraina; beharbada Ojanguren bere adiskidearekin mendirik mendi egindako ibilaldien oihartzun gisa.

Azkoitiko bere egonaldia bukatu zuen horrela, eta bere sorterrira itzuli zen.

Txonta kaleko ganbara-txuloan sartu zen horrela, bere lanetan murgilduta. Hots, orduantxe hedatzen da izari soziala duen matxinada baten berria.

Aurrera zihoan 1934ko Urria.

Gerra zantzuak

*Sekulako oihartzuna izan zuen horrek Kataluñan, Asturietako mehatze-
eskualdeetan eta Eibarren; sozialistak bertan sarturik agertzen.*

Eguneko erorien arteko azkenetakoa Karlos Larrañaga izan zen, aspaldi hartan Eibarren finkatutako azkoitiarra: hileko lehenengo ostiral batez elizara ziholarik, anarkista amorratu batek hil zuen zizpa-tiro batez.

Asaltoko poliziek jarraiturik, Iskilugintzako Eskolara bildu ziren sozialistak; eta, gogor eutsi ondoren, amore eman zuten azkenean. Ehun bat atxilotu zuten orduan, eta Iruñeko presondegira eraman.

Une laban horretan, aldaketa giro betean, On Polikarpo aurkeztu zitzaion, eta Elgezuari laguntza eskatu zion: karmeldar multzo batentzako biltoki bat behar zuen; eta hau propio Apezpikuak berak eskatua.

Horra, ba, Karlosek erantzun: oso mementu ona da.

Gure aita makal dabil ikusmenez, eta ia-ia osotara utzi dio lantegiari. Etxazpian dago hau, eta ahal dudan guztia egingo dut nik lekua prestatzeko.

Bi karmeldarrek lekua bisitaturik, hona emen egin zuten iruzkina: pozkarioz hartuko zuen hau Teresa gure amak, bai, bere hastapenetan honelako biltoki bat izan balu, eta bere fundaziotan abiatu berria zenean.

Haseran bi frailek osatu zuten komunitate berria. Elgezuaren amak hartu zituen bere gain erosketa eta sukalgintza. Denbora joan ala, handituz joan zen komunitate hura; eibartarren aldetik anaihortasun eta onginahia handiak zeudelako.

Erroma

Lanari ekin zion Elgezuak. Aurreraketak gora joan ziren; eta nazioarteko egoera oso zaila izanik ere, artista guztien ametsari heldu zion berak ere: alegia, Itallira, Artearen seaska den herrialdera joatea.

Europar inguruan, dena dela, hodei beltzak agiri ziren; baina azkarragoa zen beste ezer baino joateko delibero irmo hura.

Ventimiglian, mugan, zeraman diru guztia aitortzera behartu zuten errenterilariak; eta lirak eman zizkioten trukean, ganbioa ezin txarrago eginez. «Ondo jaioa negok» pentsatu zuen artistak.

Genovara heltzean, kanposantu famatura ikustamena lehen-lehenik. Hilobi eta panteoi galantak barra-barra... birtuosismoan harrigarri, hori bai; baina batasun trinkorik ezaz, etsigarri ere bai.

Florentziak bildu zuen osoki Elgezuaren arreta: hainbeste edertasun betesten ere, poltsikuari begiratu behar dio, ziztu ikaragarrian turrintzen ari.

Trein zuzena Erromaraino.

Bere asmoa garbi dauka: edozein komentutan zelda bat lortu, eta horretara egonaldia merkeago gertatu.

Alferrik, dena dela. Hemendik eta handik trabak agertzen zaizkio.

Erregela ezin daitekeela arinki bazter, eliz-elkarteen legediak debekatzen duela horrelakorik...!

Azkenean, famelia bat lortu. Hasteko, nolnahi ere, hilabete aurretik eskatzen; eta hau, diru-truke txarrari erantsita, gehiegi da haren poltsiku ahularentzat.

Etxe berean bizi zen, ordea, bere emaztearekin eta urte gutxitako bere alabarekin, Olarra izeneko gipuzkoar bat, espainiar Arte Ederretako Akademi-Sekretaria.

Hori dela-ta, erraztasun guztiak eskaini zizkion Akademiaren zerbitzuez baliatzeko.

Bere gailurrean zegoen orduan fazismoa; eta alkandora beltzen desfilerik gabeko egunik ez zegoen.

Bertatik zaintzen ziren atzerritarrak. Egun batzu pasa nahi izanez gero, pasaportea ez zen aski; eta poliziak ematen zuen paper berezi bat inguratu behar zen, berau gero, behar hainbatetan, paseialekuetan eta leku hetsietan erakusteko.

Arrats batez, kanpai-hots eta sirena zarata harrigarri batek zurtu zuen Elgezua.

Eta Karlosen lagunak esan: Ez hadi harri! «Adunatta» da... Alegia, Piazza Veneziaara biltzeko deia.

Plaza osoa argiturik, baita Victor Manuelen oroitarria ere. Haizean kulunkatzen ziren banderak, eta musika-taldeak han hemenka ari ziren...

Bero-bero eginik, hantxe zegoen populua, Duce-aren agertzearen zai, jauregiko balkoinean.

Bakarrik agertu zen hau orduan, besoa gora, horren gogotsu txalotzen zuen herriari erantzunez... eta isiltasuna eginik, hitzaldi labur bezain giharretsu bat bota zuen; Abisiniako hiriburuaren okupazioa iragarriz, eta antzinako Erromatar Inperioaren birsorkuntza.

Berehala erakutsi zuen Kondairak, ordea, mundutar lorien igarokorra. Munduan barrena zabaldu zen argazki txundigarri hura. Milango plazan agertu zen Ducea, Clara Petacci-rekin eta beste buruzagi fazista batzurekin oinetatik zintzilik.

Maiatzaren bukaera aldean, jasan ezina egiten zen Erromako beroa. Akademia guztiek hesten zituzten beren atea, eta pardelak bildu eta txokora itzultzeko garaia zen. Berriro hara bihurtzekotan zegoela-ta, udazkenara arte agurtu zituen euskaldun adiskideak.

Gerra zibila

Ekainaren haseran, Ama Maturanaren erretratuan ari zen Elgezua, Erromako lagunei hitzemandakoa bete nahirik.

Uztailean barrena gora zihoan karmeldarren lantegi-elkarte hura; eta hilaren erditsuan, Karmengo Ama-birjinaren bezperan, erabat bete zen; eta hainbesteraino, non bere erakustoki ñimiñoa ere antolatu behar izan baitzuen logela gisa.

Biharamonean, 17an, zurrumurru bitxiak zabaldu ziren...

Giroa tenkaturik zegoen... eta jendearen ahotan daude lehenengo zurrumuruak: mairuak altxa omen dira Afrikan... baina inork ez zekien deusik ziur.

Igandean kalera irten ziren ezkertar gazteak, iskilu-dendak asaltatuz, eta gauza bera iskilu-fabrikak.

Ikaragarrizko amorruan lehertu zen gerra, eta giro antiklerikala zen.

Fraileak etxean dauzkalarik, Elgezuak ez zekien nora jo; apezeriaren kontra gertakariak oso jutsu larria hartzen baitzuten. Hasteko, zein bere komentura itzultzea erabaki zuen; eta horrela, propaganda iraultzailearen aurka, gerta zitezkeen erantzun bortitzak baztertu.

1936ko Abuztuaren 29an, goiz argitsu ederrean, bi hegazkin polit agertu ziren zeru urdinean, eguzkiaren argitan dirdaitsu.

Gauza bitxia zenez, herri guztia paratzen zaie so, zurturik.

Herriaren gainetik inguru batzu egin ondoren, desegintza lanari eman zioten, herrian heriotza eta fundiera zabalduz.

Nolanahiko famak zabaldu ziren orduan —emakumeen artean bereziki— alegia, fraileek berek gidatzen omen zituztela pilotuak.

Elgezua, orduan, beldurrak dago osoki fraileei buruz; batez ere hau entzutean: «Fraileen bila! Hormara horiek! Erre dezagun etxea!!».

Herriko komitearekin mintzatu zen orduan eskultorea, eta egoera azaldu. Etxean dagoen guztia berea du; fraileek ez baitaukate han ezer. Etxea erretzen baduzue, jantzirik daramaguna besterik ez dugu izango; eta bertan dauden arte-lanak oro desagertuko dira. Gauza bakar bat egin dut: bizilekua eman.

Gure gizona ezaguna da, eta istimatua. Ulertu egin zuten; eta populu erra-
biatuarengandik babesteko, zaindariak jarri zizkioten.

Prakadun jantzirik, banaka banaka joan ziren fraileak beren komentuetara.

*Aitaren ezta-soinekoaz jantzi zuen lego gizarajo bat, eta hantxe joan zen, dar-dar. Aita batek, halere, ez zuen etxea utzi nahi inolaz ere. Karlista ideologi-
koa zen hau; eta ilusio bakar bat zeukan: bereak errezebitzea.*

*Azkenean, eskultorearen lokamutsa bihurtu zen hura ere joan zen; komen-
tzitu baitzuen, eta Azkoitira bidali. Eta hantxe betetsi zuen, zoraturik, erreke-
teen sarrera.*

*Zalantza egunak pasa ziren horrela; eta Martxoaren 31an Bizkaiaren gaine-
ko oldarraldia hasi zen.*

*Benetako jende-hustuketa hasi zen. Eta Elgezuak bere gurasoak agurtu zi-
tuen; eta Fraitzirakoan, Bilbo aldera jo.*

*Egitekoa ez da batere erraza. Kaminotik Ermuraino, baina bidea moztuta ze-
goen. Eta horra hor, abenturan barrena, Patxi Askasibar lagun eta adiskidearekin.*

*Eguerdian, ahiturik, Trabakua-ko lepura iritsi ziren; eta han ihesi doan oste
gaitzaren erdian aurkitu ziren. Erretiradan ari, han zeuden gudariak eta milizia-
noak, desordenu harrigarrian, behien tiratutako gurdiekin... eta, batera, jende
desberdinen multzo bat, nagusi juramentuak eta zigorren kolpeak daudelarik...*

*Elorrio eta Durango aldera zihoazen tiroak. Orokortu egin zen bataila. Bide
bakar bat gelditzen zaitzaien: Iruzubietatik Gernika aldera, baina... Oinez ezin.
Zuloan harrapatuak zeuden.*

*Ustekabean Eibarko autobus bat agertu zen osteen artetik. Gudari batek zu-
zentzen zuen. Frentetik zetorren, tresna telegrafiko batzuren eramale.*

Bertara jauzi, eta Bilbo aldera.

*Gernikatik pasatzean, dotore eta igandeko soinekotan topatu zuten berta-
ko jendea: lasai ari ziren pasean tilondoan bidetik, eta kafeak beterik zeuden,
jendea dominotan jokatzen ari...*

*Ilunabarrean heldu ziren Bilbora; eta biharamonean berri trajiko batek harri-
tu zituen: Gernikarik ez dago! Mapatik erauzia izan da.*

Zauskada ikaragarria. Areago ordu batzu lehenago handik pasata.

Bilbo setiaturik

*Senitartekoen etxera hasteko: Txomin Castañares-engana, eta Elorrioko Maria
Lasuen bere emaztearengana.*

Adinetan sartuak, lasai bizi ziren; eta oso poz handiz errezebitu zuten.

*Egun hitsak eta trajikoak haiek: salaketak nagusi, eta bekaizkeriak, eta atxi-
loketak. Areago: bekaizkeria horiek gotortu egiten zirenean, salaketak zerraiz-
kion, eta orduan afusilaketak gertatzen ziren, inolako auzirik gabe. Gau bat erantsi
behar oraindik: hegazkinak eten gabe burutzen zituen bonbaketak.*

Elgezua zalantzan zegoen: Bilbon gelditu, ala Santander aldera zihoazen ostekin batu.

Azkeneko hamabost egunak ikaragarriak izan ziren. Jatekorik ezer ez, urik gabe, eta izurriteren bat gertatzeko arrisku gorrian.

Azkenean, Artxandako mazeletan gora sartu ziren erreketek, banderak zabaldu, eta ibai-eskuinaren aldera. Gudariak artean, ganbioitan, eta euskal kantak botatzen zituelarik, helmuga ilunetarantz abiatzen ziren.

Goizean goizik Ertzain konpainia bat ikusi zuen Elgezuak, errenditzen zirelako zapi zuri bat erakusten ari. Zainketarako gelditu zen talde hura, eta erretiradarakoan gerta zitezkeen desordenuak ezintzeko.

Carlton-en parean erreketek-sarjento bat irten zitzaion bidera: «Alto! Armas al suelo!». Miatu egin zituzten, eta presondegi bihurtua zen komentu batetara eramana.

Mila pasadizu eskultorearen bizieran; baina kondaira hau ez zailegi egiteagatik, alde batera utziko ditugu.

Halako batez Albiako jardinetan barrena pasean ari zenean, erreketek-sarjento bat hurbildu zitzaion, eta eskua luzatuz: «To! Zer ari haiz hi hemengo aldean?».

Onofre Marina zen, Elgezuaren eskolakide izana, eta guarda zibil semea.

Hizketan ari zirelarik, berebiziko garrasiak entzun ziren lehenengo solairuko miradore batetik. Izena eskultoreak ahantzi nahi duen eibartar batek, besoa luzatuz eta behatzaz Elgezua seinalatuz, sarjentoari esaten zion: «A ese, a ese! Detenerle! Detenerle!». Ero-moduan eusten zion garrasiari. Baina erregu haiei kasorik egin gabe, mespretxatu egin zuten.

Besarkada batez agurtu zuten elkar.

Gertakari hark pentsakor utzi zuen Elgezua; pentsakor eta kezkatuik...

Bere ahalegin guztia hau da: pisua duen norbait aurkitu, eta Eibarrako pase bat lortzea.

Arratsalde batez, eta bazkalandoan dagoelarik, atea jo zuten.

Lehengusinak ireki, eta Domingo Castañares-en galdea egiten zuten bi pertsona ageri. Beronen emazteak, okerrera somatuz, alde egitea eskatu zien; gurasoak oso zaharturik eta gaisorik baitzuten, eta beraren arreta behar baitzuten.

Alferrik dena: irten dadila!

Beste askotan gertatu zen bezala, geroztik ez zen hartaz ezer jakin.

Felix lehengusuak orduan galde: «Pasea lortuz gero, nora joango hintzateke?». «Izpasterra», erantzuna. «Han bizi dituk senide batzu, amaren lehengusuak; eta ongi hartuko nindutekek».

«Véte al Círculo Carlista de Baracaldo, de mi parte; y allí te lo darán!».

Esan eta egin. Horrelaxe gertatu zen.

Baserrian

Dokumendu hura bere gain harturik, lehenengo treina hartu zuen Zornotzara eta Gernikaraino; eta handik, autobusez, Lekeitiora. Ereño parean kotxea utzi, eta bidean barren, bide-txiorrez, baserriraino: Astegi.

Besoak behar zituzten han; eskultorearen lehengusuek, mobilizaturik, nekazaritza-lanetarako hutsunea utzi zutelako.

Moldatu egin zen lanean. Garia erein, behiak zaindu... eta sekulako segalari bihurtu.

Lurlangintzako ekarriak oro, noski, etxen bertan jaten zen.

Larunbatetan ogi eta arto-opilak egiten ziren, aste guztirako. Letxua, babarrunak, azak... dena erruz... Pasatako eskasien ondoren, zerua zitzaion hura. Be-deinkazio bat!

Eguberria hurbil, eta fameliarekiko gogo sortzen...

Eibarra jaitsi eta gurasoak ikustea erabaki zuen. Dena berdin topatu zuen: lantegia, etxea...

Ustekaberen bat gerta ez dakion, erretiratu xamarrik bizitzeko gomendatu zion adiskide batek.

Irteera bakarra mendialdea; aurreko ibilaldietan ongi prestaturik baitzeukan Indalezio Ojangurenak —argazkilari arranoa—. Guztiz bateraturik, astero astero egun bat eskaintzen zioten mendi eta haranetan barreneko txangoari, baserrien, harmarrien, eta abarren argazkiak bilduz.

«Ni aberatsa banintz, ez hukek harririk batere fotorik gabe geldituko», esan ohi zuen bero-bero, euskal mundu guztiarekiko senditzen zuen maitasunak eraginik. Herrialdeko mutur batetik bestera, euskal izakera bilatzen zuen nekagaitz bere kamararen bitartez, pertsona herrikoiak eta mendialdeko ikuspegiak hautatuz.

Garrantzi aparteko gauza bat utzi digu: Euskal Herri osoan barrena bildutako 7.000 foto-negatiboen altxorra.

Getaria

Urte t'erdiz erretiraturik. Erromarako bere itzulia mamitu ezinean, ez zuen Elgezuak inorako irteerarik aurkitzen; ezta —barka zazue— horrenbeste deskalaborrik betesteko ere.

Ilunabar euritsu eta hits batez, xirimiriak erasten zuen bere kutsu tristea giroan. Eta guardasol bat harturik, ibiltzeko tentazioan erori zen. Aterki hartaz euririk babesten zen, bai... baina baita zenbaiten begiradatik ere..

Biharamonean, berriro lehengo laguna hurbildu; eta gordelekutik ez irteteko eskatu zion. Kalean ikusi omen zuen batek, eta hauxe esan omen zuen:

— Hori! —alegia, gogoan eskultorea zeukala— hori apoak bezala bizi da! Egunez izkutatu egiten da, eta gaez berriz ibilalditxo bat egitera irteten da.

— Beraz, badakik —amaitu zuen adiskideak.

Luzaz egongo ote zen Elgezua bere hartan, geldirik, etsita, eta inolako soluziorik somatu ezin hartan?

Goiz batez Karmelo Labaka-ren bisita hartu zuen. Getariako erretora zen garai hartan, eta Iruñeko kalonje batek eta erreketek kapitain batek laguntzen zuten; eta parrokiaren zenbait lan egitera gomiatu zuten.

Gizon berezia zen Karmelo. Jakintza zabalekoa zen; eta Elgezuarekin Artea-ri buruz izaten zituen solasaldietan ikus zitekeenez, sentikortasun fina zuen. Plu-millazko marrazkilaria iaioa zen, izan, hain zuzen. Aspaldidanik ezagutzen zuen eskultoreak hura, Eugenio Urrotz-en kondaira-literaturaren baten apaindurak berak egin baitzituen.

Berebiziko nortasuna zuen. Eta berehala bihurtu zen arrantzaleen aholkulari bakarra eta gainditu ezina.

Pozkariotan gogorazten ditu Elgezuak itsasorako bere irteerak. Txipiroitara joan ohi zen, eta eskola handia zeukan eginkizun horretan.

Lilura bat zeukan erretorak: eliz-atal nagusian, aldarearen atzeko aldean, Kristo bat lehendakari jartzea.

Oso goian paratu behar zen, leku zabaltxoan eta egun argitan. Berezko taimaina baino handiagoa nahi zuen, noski.

Lekugune egoki eta «ad hoc» hori aurkitzea ez zen lan erraza izan.

Azkenean elizako kamarotean ezarri zuten, egun argitan.

Eskultoreak kondatzen duenez, inoiz ez omen zuen bere biziera guztian barenena negu hartan pasa zuen hotza pasa. Getariarrek ere ez dute gogoan jaso halako hotzik sekula.

Lanerako beti behar zuten ura, hormatu egiten zen.

Aldamioa prestatu zuen Joxe Mari harotzak hartu zuen bere gain sua ezpalek eta abarrez beti piztuta atxikitzea, eta hartan berotzen zituzten beren eskuak.

Alimaleko egurrezko gurutze hura han plantaturik, bere burdinari eta iltzeekin batera, huraxe izan zen buztinez osatu zen egitura; eta ia dar-darrean ekin zion Elgezuak modelakuntzari.

Lanari heldu zion gogoz, beraz. Jasandako sofrikarioen ondoren, mementua ona da; ia-ia artista «trantzetan» jarri dela esango genuke.

Nola egingo ote du bere Kristoa? Hilik idurikatuko ote du, ohi den eran, burua makurturik, apurturik, leher eginik? Ez, horixe! Kristo bizi bat nahi zuen eskultoreak. Neurririk gabeko besarkada zabal batez, gizon guztiak bilduko zituen Kristo bat, maitasun mugagabek eta begirada eskari, bere Aitaren aurrean harrateko bihurturik.

Lotura sortua da. Hortxe dago hitzik gabeko elkar hizketa; eta Elgezuak modelatu egin zuen, gero eta gorago modelatu, antzaldaturik modelatu; inoiz ere ezagutu ez zuen joranez lanean ari.

Lan hura mamitu ala, bere bihotzetik heldu zaizkion zauskadak ezin menderatu, eta erruz isurtzen dira eskaera eroak...

Kristoa dagoeneko bukatzen ari; eta, pena gaitzez, Getariari agur esateko tenorea etorri zaio. Eta bere pasio kiskalgarriak gaindituz, eguneroko errealitatera etorri behar berriro.

Donostia

1943 aldean Getariatik aldegin, eta bere txokora berriz.

Hiriko urruti-minak gero eta osokiago hartuko zuen.

Enkarguei buruz –galdetzen dio eskultoreak bere buruari– hiriburuko giroa ez ote da hobe izango herriari datxekion bakardadean egotea baino?

Mementu horretan, bestalde, nabarmen zeuden gerraondoko gosea eta urritasuna. Ogia azaldu ere ez zen egiten; eta, beraren ordeztan, artopilak ikusten ziren. Estraperloa ere agertu zen, eta racionamientoko libreta haiek; eta, boniatoa jaten zen, lusagarraren ordeztan, eta sasilarra...

Zertzelada hauek guztiak bere asmoa betetzera bultzatzen zuten Elgezua, eta ahalik eta azkarrenik egitera.

Luzaz ideiak hausnartu ondoren, eta aldeko eta aurkako alderdiak parekatu ondoren, aurrera jotzea erabaki zuen.

Gipuzkoako hiriburura heltzean, bizi beharrez, lanpostu baten bila abiatu zen. Eta luzaz batera eta bestera ibili ondoren, imajinak multzoka prestatzen zituen lantegi bat aurkitu zuen.

Lantegi hartan gauza bitxiak topatu zituen; beren esanahian tragiko eta okaztagarriak ez balira, farragarri ere gerta zitezkeenak.

Erruz agertzen ziren irudiak eta imajinak, eskabideren bat etorri zai... baina honatx batera tragikoa eta komikoa zena...

Eman dezagun, adibidez, San Joseren irudi baten eskaera zetorrela: Haurra besoetan izan behar zuen, halako neurrian; eta orduan tamaña bereko Ama-Birjinaren irudi bat baliatzen zen, burua ebaki egiten zitzaion Birjina gaisoari, eta San Joserena erantsi; eta kitto. Edo-ta, alderantziz, kasuaren arauera.

Han zia! Dena on!

Eta gauza ez zen horretan amaitzen. Zeren-eta soldataz... ez aipatzea hobereena! 1,20 pezeta ordaintzen ziren, baina... ZENTIMETROKO. Batek baino gehiagok galdetuko du: nola uler daiteke hori?

Oso erraza da. Eman dezagun Bihotz Sakratuaren imajina bat. Metro batekoa baldin bazen, 120 pezeta ordaintzen zaitzaizkion. Baina gauza bera, baino metro erdi batekoa izanez gero, 60 pezeta; nahiz, seguru asko, honek lan handiagoa eman: zailago, delikatuago, eta denean xehekiago ibili beharrekoa.

Eginkizun hura lotsagarri eta okaztagarri iruditzen zitzaion Elgezuari; baina bizi egin behar.

Erlijio loraldi bat gertatzen ari zen. Apezgaitegiak beterik zeuden osoki; eta dominak eta imajinak sailka prestatu behar ziren, eska ala ezin buruturik.

Jasan ezina zitzaion sistema hura; eta helburuari eutsi behar zion, lanbidearen baldintza minimoak beteaz; eta horrela bere buruz eta kabuz, bidea urratu. Baina hau garai hartan ez zen batere erraza, lokale hutsik ez baitzegoen ia-ia.

Eibarra aldatu zen horrela. Eta halako goiz batez eibartar handi baten bisita izan zuen. Ignazio Anitua etorri zitzaion, alkate eta probintzi-deputatua; eta Diputazioaren erabakiaren berri eman zion: probintzi-liburutegian Serapio Mugikaren bustoa jartzekoa. Kronikari gisa, nortasun aparta izan zuen honek, eta Gipuzkoako seme gorena izendatu zuten. Eta berorren prestaketa eskatzera zetorkion. Pozez onartu zuen Elgezuak eginkizun hura, noski.

Baina honek berriro azkartu zuen lehendanik ere zeukan kezka: alegia, hiriburuan lanleku bat aurkitzekoa. Denaz gain, Mujikaren senitartekoek beren laguntza eman ahal ziezaioten.

Urrats berri bat

Lanlekuaren beharra Azkue Dionisiori azaldu; eta «Dunixi» pintore ezin finagoa eta idazle aparta hotz eta errealista agertu zitzaion batera.

Hori baino lehenago, beste saiaketa batzu egin zituen eskultoreak, berak eta bere lagun batzuk. Santiago Bereziartuaren bitartez, adibidez; baina ondoriorik gabe denak, eta xeheki lerrokada osoa ematea aspergarri litzateke.

Soluzio bakartzat Dunixik hau proposatu zion: Donosti inguruetan begiratzeari, Pasaian, Errenderian, Astigarragan... Eta, to!, honek On Poliren aholku zaharra gogorazi zion... hastapenetan hura.

Astigarraga herri atsegina zitzaion, leku baketsu eta lasaia, hiritik hurbil, lotura onekin, eta ikuspegia eder.

Bertako sagardotegiak ere famatuak ziren, eta nahi-ta-ezko bilgune bihurtzen adiskideentzat. Bisitariak, sagardoan ona neurtzeko aitzakian, egunero bil-tzen dira hara.

Segundo Aldazabal eibartar erlojulari herrikoia bisitatu zuen orduan. Aspal-dian bizi zen Donostian; eta erlojulariaren suhia zen Ramon Aristegi-ren lagun-tzarekin, txoko guztiak ongi ezagutzen zituzten biokin dena miatu; baina berriz ere, alferrik.

Etsita, jota senditzen zen artista, eta nora jo ez zekielarik.

Tranbia Loiolako geltokian gelditzerakoan, etxe batek harritu zuen eskultorea. Hutsik bide zegoen, eta teilatuaren erdian sabai-leiho bat erakusten zuen.

Harra barruan ari zitzaizola, bere buruari galdetu zion: norena ote da etxe hori?

Biharamonean, kezkatuta, eta berriz errekarra jotzeko beldurrak, hara azaldu zen berriro, eta etxearen aurrean gelditu; eta errotulo hau ikusi zuen: «Se vende». Eta «informarán en la calle Hernani, Ramón Fernández Iturralde»...

Biharamon goizean bulego hartara agertu zen Elgezua, eta ikusaldiaren zioa azaldu:

- Salgai duzun etxe horretan gelatxo bat alogeratzea nahi nuke.*
- Ezta inolaz ere! Ez dut istilurik nahi!*

Etsita, hau erantsi zuen orduan: Begira: ni eibartarra nauzu...

- Eibartarra zu? —harrituta—. Don Poli ezagutzen al duzu?*
- Lagun minak gara —erantzuna.*

— Halako batez —Ramonek jarraitu zuen— bibolin kontzertu bat ematera eraman ninduen Eibarra. Baina neukan aginetako mina izugarria izanik, ezin hura ahantz.

- Eta orain, non da?*
- Baionako katedralean, sankristau.*
- Gizona! Maila horretako gizona, eta sankristau?*

Bizkortzen hasia zen jadanik Elgezua: eta tartetxo hura ikusita, iltzea osotara sartzea pentsatu zuen:

— Horra. Diputazioaren aginduz, Serapio Mujikaren bustoa egiteko besterik ez dut behar.

— Gizona! Zergatik ez zara horretatik hasi? Hauta ezazu lekurik onena; eta, inolako konpromezurik gabe, egon zaitez hor behar duzun denbora guztian. ³

Atarramendu galanta atera zion Karlosek lokaleari. Busto harez gain, Zuloaga pintorearena modelatu zuen bertan: brontzez osatua, artistaren mendehurrenean agindu zioten lan hori Udaletxekoek.

Txilerako Mariaren Bihotzaren irudia... Pablo Zabalok polikromatua.

Enkargu horiek izanik ere, eta horregatixek agian, horrela jarraitzerik ez zeukala ulertu zuen artistak.

Hernaniko erretora zen D. Karmelorengana jo zuen:

— Ni bizi nintekeen baserriren bat ezagutzen al duzu? Hezurretan gelditzen ari naiz.

— Hain zuzen ere, Astigarragako eskualde eder batean bizi den famelia bat ezagutzen dut.

Eta bertan kokatu zen Elgezua, Elenategi baserrian, goserik gabe, lañoki tratatua, zoriontsu azkenean.

Erakusketa

Donostiako Etorbidean dagoen Arte-Galerian antolatu zuen erakusketa bat; eta horra nolako suertez, zeren-eta zabalketatik bi egunetara elektrika-mozketak agindu baitziren, eta beraz itzalaldi berberak eskaparetean eta barrualdean. Elgezua, nolana ere, ongi zaildua zen kolpeak jasaten.

Halaz ere, prentsa eta irratia interesatu zituen, eta lortutako oihartzunak kritikariak eta publikoa bera hunkitu zituen.

Bolara zoriontsua

Bere ekintza eremua Loiola, Martutene eta Astigarragan kokatu zen, hiru hauek hiriko inguruetako auzoak.

Arratsean, josulagunek zuzentzen zuten Langile-Institutura joaten zen, eta han langile gazteei ematen zizkien marrazketa eta modelakuntza ikaskaiak.

Donostiatik Hernanirako tranbia zoragarria zen. Ikuspegi ederrak gurutzatzen zituen; eta «jardineria» herrikoi haietatik hura betestea, pozkario iturria zen.

Honetan hasi zen artistaren bizi-arorik interesgarriena eta zoriontsuena.

Adiskidetu egin ziren «jardineretako» bezeroak. Eguneko gertakariak solastatzen ziren han zehatz mehatz, eta agertzen ez zen izkutukirik ez zegoen.

Artistari ere bere txanda heldu zitzaion, eta denen solas iturria bihurtu zen.

Hots, horra hor...

Pakita ezagutu zuen; Jose Garaizabal herriko sendagile titularearen alaba. Mirespena eta maitagunea gora joan ziren. Haren xarma ariman barrura sartu zitzaion, gero eta barnago; eta egunen batez hura gabe bizi ezin zitekeela ulertu zuen.

Arantzazun ezkondu ziren 1946ko Urriaren 3an; han Antonio Lasuen frailea bizi zelarik.

Egia zuen, bai, D. Polik, haseratik Artearen bideetan Astigarraga gomenatzean.

Bai arte-gunerako, bai bizileku egoki gisa, leku bat behar zuen; eta horrela arkitekto eta adiskide zuen Pablo Zabalok egoitza eder bat asmatu eta eraiki zien; eta hartan bizian barrena elikatu zuen ilusio nagusi bat mamitu zen: alegia, atseginez lan egitea.

Ekintza joria

Ekintza ugariko garaia etorri zitzaion orduan: mandatu asko, zenbait aldiz oso bereziak.

Bere aitaren erretratu nahi zuen Mariano López Sellés iruñar adiskideak; baina baldintza bakar bat jarri zion: erretratakitzen ez zuen jakin behar zertan ari ote ziren, horrela sorpresa osoa izan zekion.

Ikusten zituen trabak azaldu zizkion Elgezuak:

— Nola lortuko busto hori erretratu-gaiak bere burua aurkeztu gabe?

Hor konpon hori: ahal bezala egizu! Arrasto hau emango dizut bakarrik: gure aita arratsaldero joan ohi da Urumea frontoira; eta han topa dezakegu.

Haraxe joan zen eskultorea, bloka eta arkatza eskuan.

Egun batean haren eskuinean jarri zen, beste batean ezkerrean, atzekaldean beste batez; erretratu-beharra, arreta jokuan eta apostuetan, malobraz ez zen batere ohartu, eta ondorioa lortu egin zen.

Mutrikuko «Egaña» industriren aginduz, domiña-erliebe batzu prestatu zituen.

Itxura modernoko Jose Saindua, Haurrarekin, antolatu zuen; Ategorrietako Ama Josefinek beren otoitz-gunearentzat eskatua.

Trintxerpeko Karmengo Elizan, aldamiu batetan igota, aurrekaldeko eta alboetako erliebeak zizelkatzen ari zenean, besterenaren lagun maltzurren batek txaketako poltsikuak miatu, eta oso istimatzen zuen zilarrezko erlojua ohostu zion.

Lana bukatzean, jasotako diruketa hartu eta urrezko beste erloju bat erosi zuen; oraindik ere bere eskuetan.

Orduan, Ama Josefina horientzat berriro, eta jardinetan zementoz eraikitze-kotan, Ama Birjinaren irudi bat egin zuen, bildura handian. Honetxek erakusten du ongienik aurreko enkargoarekin pozik gelditu zirela. Lan hau ere garai berekoa da. St. Germain-des-Près-ko Birjina Zuriarena datorkio Elgezuari gogora, antzinako oroitzapenak pilatzen zaizkiolarik.

Herri laño hartan ugalduz zihoazkion adiskidetasunak.

Anaitasunezko bazkariak egiten zituzten «Mikaela» enean; eta mahaikideak ondoko hauek zirelarik: Patxi Telletxea, Joxe de Artetxe, Manuel Lekuona, Nemesio Etxaniz, Koldo Mitxelena, Zeleta, eta beste.

Bere aita bezalaxe, espartingilea izan zen Txomin San Sebastian Murua; baina Afrikan burutu zuen bere soldauskaldia bukatzean, parroko sankristau kargua onartu zuen. Basarri bere lagun handiak eskaini zion lehenengo zutabea idatzi zuen.

Lau hizkuntza ikasi zituen. Autodidakta zen, eta «Txadon-zai» gaitzizenez izenpetu ohi zen (elizaren zaindaria, alegia). Artxibategi bizia zen askoren aburuz. Beti ere hizpidea ematen zuen haren hizketak, eta bere irizpide zuhurrez osatzen zituen.

Astigarragako filosofo txikia deitzen zuen Arturo Kanpionek; eta Astigarragara bisita egiten zuenean, solasaldi galantak izan ohi zituen.

Hernanin hil zela Elgezuak jakitean, trasteak besapean hartu; eta igeltsotan maskarilla bat ateratzekotan, hara joan zen segituan, senitartekoen eta lagun oroigarri izan dakien.

Huraxe zen hilondoko bere goratzarrea.

Zinez, ekintza biziko garaia izan zuen hura.

Bere lantegi ederraz maiteminduta, lanean eten gabe ari, atsedenaldi bakar bat onartzen zuen artistak: uda guztietan bere fameliarekin Arantzazun pasa ohi zuen aste luzea.

Zoriona osatu zion orduan Arantza bere alabaren jaiotzak.

Bere emaztearen eta alabatxoaren erretratuak mamitzerakoan —ilusio nagusia— eta usterik txikienean, infarto-zantzu batek jo zuen, eta batera pleuresia isurketa gogor batek harrapatu zuen.

Tarrapataka ingresaturik, beste galbario berri bat hasi zen Elgezuarentzat.

Saihetsean zauria irekita, hamar hilabete behar izan zituen hesteko; eta gauak eta egunak pasa zituen loak ezin harturik, edozein janarirekiko jangartzu; eta, batez ere honegatik sofritzen zuela, lanean ezin eginik.

Hilabeteak joan ziren, eskultoreak bere ikusmena galtzen ari zela erreparatu zuen... eta begi-kanduak somatu zizkioten. Operatu egin zituen, eta guztiz ondo irten zen hartatik.

Urteak aurrera artean...

Eibartar Artisten Elkartearen sustapenez, eta bertako Udalak lagundurik, Erakusketa bat antolatu zen 1973an. Erakusketa-Goratzarre hartan bere eskultura eta marrazki batzu agertu ziren.

Juan Maria Alvarez Emparanza arte-kritikariak hitzaldi bat eman zuen horretaz, eta artistari buruzko gomutaldi batez hornitu zuen.

Beste puntuzko batzu ere ari izan ziren hizketan, hala nola Juan San Martin, Alkatea, etab...

Ospakizuna amaitzean, zilar landuzko erretilu berezi bat eskaini zitzaion eskultoreari; bertan, egun ospaketaren oroigarri, izkribu bat zekarrelarik.

Han elkartu ziren, Donostiako San Telmo Erakustokian, eta 1981ko Azaroaren 30an, zenbait puntuzko; eta areto baten zabalketa zela-ta, merezia zuen goratzarrea eskaini zioten.

«La escultura en Guipúzcoa» idazpuruaz, eta Udal Aurrezki Kutxak sustaturik, liburu bat argitara zuen Julian Martinezek, eskultorearen bizia eta lanak xeheki azalduz.

Aretoa beterik zegoen. Besteak beste, han zeuden egun hartan: Leizaola Lehendakari-ohia, Joxe Mari Aristegi lehenengo Alkate-ordea, Aizarna deputatua, Eskultorea bera, Amigos del País-eko Lehendakaria, Juan Ignazio Uria, Otaño jauna, Aurrezki Kutxako Lehendakaria; eta publiko ezin ugariagoa.

Artistaren bizia solastatu ondoren, arte-xafla bat eskaini zitzaion.

ELGEZUA ETA BERE GARAIKO ESKULTURAREN ARTEKO LOTURA

Artearen bilababidean artista batek ekarri duenaren funtsa ongi neurtu ahal izateko, ezinbestezkoa da garai hartako joerak kontutan hartzea, beroiek eta haiek alderatzeko edo kontrajartzeko.

Atzean gelditu dira obra ohiturariak eta kondairazkoak; askotan langela ilun hitsetan margotutakoak, eta Impresionismoaren itsasaize bala freskoek korrituak. Eta mende haseran —edo-ta joan denekoaren azkenaldian— Elgezua jaio zenean, funts gizatiarra duen joera hasi zen. Honen bertute nagusia, dena dela, sortzezko egiazkotasun borobila zen.

Honi buruz badago Elgezuaren aipamen erabateko bat, bere oinarri naturalista horretan: artista bakoitza txori bat da; eta txori bakoitzak bere erara du kantatzen.

Askatasunaren adierarik sakonena datza horretan.

Ba al dago sinbolikoki txoriak baino hobeki ordezkaria dezakeenik? Horrekin batera, eta kontzeptuen ortodoxia osoan mogituz, sortzezko egiazkotasun hori da kakoa; eta hau ez da sekula moda nagusiaren fruitua.

Artista multzo oparo horren barruan aipa genitzake, besteak beste: Julio Antonio ijituairia: xorta besagainean harturik, mendiak eta haranak kurritu zituen honek, «La Raza»ko busto gaitzak mamituz. Macho, bestetik, bere Gaztelako zuhurtasunean; Llimona, agian erromantikoena eta sendikorrena, biluztasun emea aratz ondoenik aurkezten jakin duena. Clara, Adsuara, eta abar luze bat.

Iturri horietan edan zuen Elgezuak; eta, normala denez, eragin horiek guztiak erakusten ditu bere obran. Eta, agian, ezaugarri nagusi batzutara bil genitzake.

Alde batetik, edonolako materiaren maisutasuna. Zuretako tailaketa, harri-takoa, eskaiola hustuketaren puntuen bidez.

Erretratuarekiko jaiera.

Arrazazko irudiarekiko joera, arketipikoa: pilotariak, mendizaleak...

Proporzioekiko errespetu handia, estilizazioak direla-ta amore eman gabe. Hori dela bide, bere eskulturan ezinezkoa da keinu hanpatuen arrastorik aurkitzea.

Errealismoa nagusi baina gogortasun fisikoan: bizia darie soin azkar horiei. Hitz batez, ikusmenetik at oinarririk ez du onartzen.

Tokatu zitzaion garai nahasia dela bide, gainerako euskal artistekiko bere loturak ez du lasaitasunezko izaririk. Beste egoera batean horrelakorik espero liteke. Hala ere, arte harreman edo oreka bilatzen saiatuko gara, horretarako bere garaikidea izan den zumaiar eskultore bat hautatuz: Beobide.

Hasteko, elkarrekiko baliapena eta mirespena hartuko ditut abiapuntutzat.

Beobideren seme-alabekin hitz egitean, hau zioten:

— Zenbat aldiz ez zuen aitak Elgezuaren izena etxe honetan aipatzen!

Elgezuaren ustez, berebat, zumaiar eskultorea zen berezko artista, barne-deiaren erantzulea. Eta, dena esatekotan, Beobide-Zuloaga harremanak ere bere eragina izan zuen.

Zilegi bekigu orain hitzaspertu bat, ideia batzu argitu eta alderaketa bat egiteko.

Mendetako tartea gogoan hartuz ere, Velazquez jenio bat izan zen, eta Goya ere bai. Margoketan betirako ekarpena lortu zuen lehenengoak. Bera izan zen «aurpegiko begiez, eta ez adimenekoez» pintatu zuen lehendabizikoa. Sendo eta seguru zapaltzen zuen jenioa izan zen, berriro errepikatuko dugu. Bazekien nondik zetorren, eta bere helburua zein zuen ere ongi zekien, eta kontzientzia eta segurtasun osoz zekien.

Lehertzen den bonba izan zen Goya: jabetzen ez den natura izan zela, saldu ezina; kontrola ezina esango genuke ia-ia.

Beobide, bere marrazkera zuhurra, zehatza eta segurua baliatuz, ibilkera seguruaz abiatu zen Artearen bideetan barrena.

Elgezuarengan, berriz, eskultura irribarrez bezala isurtzen da barnetik, geniotasun osoan; eta desenkusatzuz bezala azaltzen da, harrigarritzko erraztasunean.

Halako batez Higinio Basterrak honela esan omen zion Elgezua gazteari: beste batzu borrokan ari dira eitea lortzeko; zuri, berriz, ohartu gabe bezala gertatzen zaizkizu gauzak.

Beobide aiputan zeukan batez —baina kritikatu nahi gabe— eskultorea har-gintzat ezin daitekeela har esaten omen zuen. Buen Pastor enparantzako Vinuesaren oroitarrian, alegia, atzekaldean leunduago eta hobeki bukatua utz zitekeela. Era berean, Bilboko Erakustokian Zuloagari eskainitako bustoan, akort ez zela

esaten zuen; ez baitzuen ulertzen paletak, metalez egina, beste materiale batez zergatik egin behar zen. Lanbide etika kontua!

Oso adierazpen desberdinetako artistekiko harremana lortzea oso da zaila, esaten zuenez.

Zer atera dezake garbitan letra-gizon batek, ulertzen ez duen mintzaira batez idatzirik baldin badago?

Lehengo aipamena ez da ahantzi behar: «Artistak txoriak bezala dira, eta nork bere modura kantatzen du».

Gaur egun, areto zabal handi bat betetzen dute erdibana Elgezuak eta Beobjdek Donostiako San Telmo Erakustokian. Eta horretan bi artiston obrak betets daitezke: bizieran barrena biak joran berberak eraginik. Alegia, igarokorra, iritsi ezina nolabait harrapatzeko eta mamitzeko jorana. Edertasuna biltzeko asmo egarritzua.

URRATSAK ELGEZUAREN ARTELANETAN

Azterketa labur bat egiterakoan, haro edo urrats batzu zehatz daitezke Elgezuaren artegintzan. Horiek, dena dela, ez dute aldakuntza osorik idarokitzen, ez eskulturgintzaren ideian, ez gaietan eta ez egiteko moldean; beroiek ez baitira funtsean ezer aldatu bizian barrena.

Honela laburbil daitezke horiek —beti ere Elgezuaren Artea ulertua, dastatua eta ulertua izango den heinean—.

Aurrikasketaren haroa. Begiak Artearekiko zabaltzeko urteak. Artearen Kon-dairan liluraturik egoten da, eta iristen duenaz zoraturik. Honela azpi-sailka dai-teke: Marrazketaren Praxia, Artamendi, Zulaika eta Olabe. Zuretan egindako zi-zelketa, Larrinoarekin, Gasteizen.

Bigarren haroa, Ikasketarena. Gaztaroko urratsa. Ikaspenen zabalketa: Bil-boko Arteak eta Eskulanak, Higinio Basterra.

Hirugarren haroa: ikasitako guztiaren mamikuntza eta obrakuntza. Horretan sartzen da Paris eta Erroman barrena egindako bizialdia; eta Nobelen Saria ira-baztean hasia.

Laugarrena, heldutasun oparokoa. Astigarragako txalet-lantegian finkaturik, enkarguak jaso, eta ezaguna izan artekoa.

Bostgarrena eta azkena: finkaerakoa. 1946z geroztik eta gaisotu arte.

Lehenengoan, dena zen ikasmina, eta somatzen zuen munduarekiko senti-duen irekiera. Ordu guztiak gutxi zaizkio artistari, eta bere zaletasuna ezin be-terik ari zen. Haro honetan, etengabea izan zen irakasleekiko harremana.

Rodin-en eragin espresionista ageri da urratsetan zehar: «Gauza bat da an-tsi: senditzea, maitatzea, dardar egitea, bizitzea; gizona izan behar da aurrenik, eta artista gero».

Bourdelle eta Carpeaux miresten zituen; baina Rodin iraultzailearen malgutasunak txunditzen du. Zirriborrotutako torsoetatik hasi, muskuluak gitarrakordak eteteko zorian ageri; eta haur erretratuen fintasuneraino, teknika ezin landuagoan borobiltzen dituelarik.

Horra hor, adibidez, Elgezuak burututako Ziriako Agirreren bustoa. Testa zoragarria da hori, eta erromatar arbasoei ez die ezertan zorrik.

ONDORIO GISA

Elgezuaren Artea oso arte berezia da, oso berea du, oso Elgezuarra.

Berezitasun hori, ez da artifzialkeria, sorkuntza-sua baizik. Sakonean datza, ez da itxuratan galtzen. Pentsamendua da, ez esaldia.

Eta horretan lortzen du bere indarra, bere xarma.

Bere eskulturak beti dira mintzo, sekula ez dira irudi soil.

Sorkari bitxia da eskultorea: zerbait adierazteko ez dauka hitz egin beharrik. Funtsean, egiazko eskultoreak, benetakoa — eta Elgezua halakoa da — bere lan-tegiko isilpean pasatzen du bere bizia. Hantxe dauka bere pleguko mundua; hantxe kantatzen du, eta hantxe etsipenean murgiltzen; hantxe mamitzen ditu bere fantasiak, hantxe pentsatzen, senditzen eta maitatzen; bere begiak eta eskuak, bere bihotza eta izpiritua, buztinean, honetan itxura eta arima erantsi nahian, hondoratzen eta sartzen diren heinean.

Naturaren elemenduen aurrean, altxa egiten da artista, eta harri-mokorraren aitzinean galdetu eta laztandu egiten du hau, ia-ia erlijioaren mailako errespetu beraz; eta gero, azkenean, lanketa hasten.

Brontzea zizelkatzean, berak ateratzen dio kanpai hots sakona, armoniaz be-tea; eta berorren oihartzuna lantegian barrena zabaltzen da, tenplo-dardara eran-tsiz. Eta geroenean hutsartera igotzen da, metamorfosia iragarri nahi balu be-zala. Lehen materia arimagabea zena, Artearen poderioz edo garaziaz, elemendu eder, goitar, arin, hegodun eta ia jainkotiar bihurtzen delako.

Ikutzen duen guztia egiten baitu Arteak hilezhor, eta bere betikotasun ku-tsua erasten.




Getariako Parrokiko Kristoren zatia. Argazkia: Ramón Serras.

Fragmento del Cristo de la Parroquia de Guetaria. Fotografía de Ramón Serras.



Getaria Parrokiko Kristoren argazkia: Ramón Serras.

El Cristo de la Parroquia de Guetaria. Fotografía de Ramón Serras.



Juantxo Egañaren argazkia.

Foto de Juantxo Egaña.



Atano III, Elgezua eta Imanol Elorza (GAR argazkia, Zarautz).
Atano III, Elgezúa e Imanol Elorza (Foto GAR, Zarautz).



Afrikarako Espediziorako prest, 1921an Annual-go deskalabroa gertatu ondoren.
Preparado para la Expedición a Africa, después del desastre de Annual de 1921.



Malaga-ko kasernetan euskal soldadu batzu, arrantxoaren garaian.
En los cuarteles de Málaga, a la hora del rancho, reclutas vascos.




Pausaldi bat argazkiaren ondoren. Garagardo pitxar baten aurrean artista eta txapeldun pelotaria.
Descanso después de la pose. Ante una jarra de cerveza el artista con el campeón manomanista.



Luzia Zuloaga anderea, pintorearen alaba, berorren semearekin; eta opera-kantaria zen Federico Artamendirekin solasean; eta horiekin batera gure artista, pintorearen ohoretan erakitako oroitarriaren estrainaketan.

D.^a Lucía Zuloaga, hija del pintor, con su hijo, conversando con el cantante de ópera Federico Artamendi y el artista, en la inauguración del monumento al pintor.



Simon Arrieta bergarar pintorearen oleoa; eskultoreak busto bat prestatzen zion garaian egina.
Oleo del pintor bergarés Simón Arrieta, hecho al tiempo que el escultor le modelaba un busto.



Ezkontza Arantzazuko Elizan. 1946ko Urriaren 3an.
Boda en el Santuario de Arantzazu. 3 de Octubre de 1946.

**CARLOS ELGEZUAREN
OMENALDI ERAKUSKETÁ**

**«ASOCIACION ARTISTICA DE EIBAR»ko
BERE ADISKIDEEN OROIGARRIZ**

1973ngo AZAROAN



Hizlari batzu artistarekin, Erakusketa-Goratzarrekoan.
Locutores, con el artista, en la Exposición-Homenaje.



Ezkon-bikotea.
El matrimonio.



Eskulturaren eskuin aldean, Arantxa alaba.
A la dcha. de la escultura la hija Arantxa.



Artista bera eta Lukas Alberdi.
El artista y Lucas Alberdi.



Los Sres. Leizaola, J. Martínez, la esposa del escultor, Aristegui, Aizarna, el escultor, el senador Uribe y el Presidente de la CAM, Otaño

Sal Telmo, 1981ko Azaroaren 30.

1981ko Azaroaren 30an. Artistari eskainitako Gelaren estriañaketa, San Telmo Erakustokian.

30 de Noviembre de 1981. Inauguración de una Sala en el Museo de San Telmo, dedicada al artista.



Atano III. ren tallaren aurean.
Ante la talla de Atano III.



Bere irudiak dauzkan aretoaren estrainaketa dela-ta, San Telmoko hitzaldiak.

Discursos en San Telmo, con motivo de la inauguración de la sala con sus esculturas.



Sres. Aristegui, Aizarna, la esposa y el escultor, Uria, los hijos del escultor Beobide y Otaño, presidente de la CAM.



Leizaola, artista bera, eta M. Pilar Beobide, zumaiar eskultorearen alaba.
 Leizaola, el artista y M.^a Pilar Beobide, hija del escultor zumayano.

LAN-ZERRENDA

Lan-zerrenda arrazoitua

Taxuketa sistema

*Taxuketarakoan, **KRONOLOGIA** hartu da gidari.*

Zehaztasunik handiena bilduz nahiz, hona hemen berrikusi eta finkatu diren datuak:

- 1. Daramaten eskulturetan, data bertan errejistratzea.*
- 2. Artistaren egintza prozesuan, lekua-denbora-egoera trinomioaren egokikuntza. Adibidez: Leon Sarasketaren bustoa. Pertsona hau Parisen bizi zen. Eskultorea Parisen bizi zen dataren berregiaztapena.*
- 3. Eskulturen lerroketa kronologiko hori lortzekotan, artistarekin izandako elkarrizketak.*
- 4. Gorago aipatutako ilara horretan, azterketa xehea egin da, artistaren bilakabidea, bai heldutasunean bai osotasunean, ñabartuz eta zehaztuz.*

CATALOGO DE LA OBRA

Catálogo razonado

Sistema de Ordenación.

Para el Sistema de Ordenación, se ha seguido el **CRONOLOGICO**.

Para ello se ha procurado, el máximo de seguridad en datos posible, teniendo como puntos compulsados los siguientes:

1.º El registro de la fecha, en las mismas esculturas que lo tienen.

2.º La adecuación del trinomio espacio-tiempo-situación, en el proceso de ejecución del artista. Por ejemplo: busto de León Sarasqueta, persona residente en París. Comprobación de fecha en estancia del escultor en la capital de Francia.

3.º Las conversaciones mantenidas con el artista para ubicar relación correlativa cronológica de esculturas.

4.º Dentro del orden anteriormente citado, un estudio y exámen minucioso, matizando el lógico proceso evolutivo de madurez y perfección en el artista.

OBRAREN LAN-ZERRENDA

JAZINTO OLABE pintorea.

- Izenperik gabe.
- Eskaiola patinatua.
- Neurria: 47 cm. gora, 26 cm. zabal.
- Urtea, gutxi gora-behera: 1917.
- *Erliebe atsegina. Bere ahalegin artistikoen haseran, Jazinto Olabe izan zuen lehenengo irakasle: eta eskerronez nahi dio goratzarre egin.*

Bere burura bilduta ageri da hau, betazalak erdi-hetsita; eta aurrekalde-tik bere lanbidearen tresnak erakusten ditu: paleta eta pintzelak.

Ainguru zuzenezko herskune baten bitartez, oinarrizko peanan sartzen da xafla.

Zalantzarik gabe, atsegin izango zitzaion eskultorearen jokabide hau.
- *Olabe fameliaren ondasuna da.*

Ik. 1. argazkia

CATALOGO DE LA OBRA

JACINTO OLAVE pintor.

- Sin firma.
- Escayola patinada.
- Mide 47 de alto por 26 cms. de ancho.
- Año aproximado 1917.
- Es un grato relieve, con el que Elguezúa, quiere rendir tributo de agradecimiento, a su primer maestro en lides artísticas, Jacinto Olave.

Se ve a éste, en actitud de profunda concentración, con los párpados semicerrados, asoman en su parte delantera los atributos de su profesión, la paleta y pinceles.

Se inserta la placa en la peana de base, por un estrechamiento en forma de pestaña en ángulo recto.

Sin duda tuvo que serle grato al maestro, el gesto del escultor.
- Propiedad familia Olave.

Foto N.º 1



Jazinto Olaberen erliebea. Eibarko Akademian pintore eta irakaslea.
Relieve de Jacinto Olave, pintor y profesor en la Academia de Eibar.

OINAZEA


- *Izenperik gabe.*
- *Modelatua, eta harri-puntu bidez igeltsotik ateraia.*
- *Neurria: 75, eta 43,5 eta 39 cm.*
- *Urtea, gutxi gora-behera: 1919.*
- *Eredu gazte baten soingaina, Bilboko Arte eta Eskulanen Eskolan. Nabarmen agertzen da formen azterketaren beharra, eta anatomi hausnarketaren gozapena, eta horretan sortzen da geroko modelagintzan agertuko den segurantzia.*
- *Kokalekua, ezezaguna.*

Ik. 2. arg.

DOLOR

- *Sin firma.*
- *Modelado, y sacado por puntos en piedra, del yeso.*
- *Mide 75 por 43,5 y por 39 cms.*
- *Año aproximado 1919.*
- *Torso de un joven modelo en la Escuela de Artes y Oficios de Bilbao. Hay una evidente necesidad de análisis de formas, un recrearse en el estudio anatómico construyendo así, la base de su posterior seguridad en el modelado.*
- *Paradero desconocido.*

Foto N.º 2



OINAZEA. Bilboko Arte eta Eskulanen eskolan modelatutako torsoa.
DOLOR. Torso modelado en la escuela de Artes y Oficios de Bilbao.

XAMURTASUN BILA

- *Izenperik gabe.*
- *Carrara-ko nabarriz egina.*
- *Neurria: 57 cm. gora, 23 cm. zabal.*
- *Urtea: 1920.*
- *Emakume-burua da ikergaia; eta bertan gainaldeen arteko kontrasteak bilatu dira, batzutan leunetara lortuz, bestetan zakarrera besterik ez kenduz, modu horretan begitarte gailen dadin: irribarrea mintzakor, jarrera adeitsu, eta keinua eder.*

Panteoi imajina batetan oinarriturik, soin osoan irakasle zuen Higinio Basterrak eginik, bidenabar bere goratzarrea eskaini nahi izan zion.
- *Eskultoreari eskainitako aretoan dauden irudien artean dago hau.*

Ik. 3 eta 3 bis arg.

BUSCANDO LA TERNURA

- *Sin firma.*
- *Realizada en mármol de Carrara.*
- *Mide 57 de alto por 34 y por 23 cms.*
- *Año 1920.*
- *Se trata de un estudio de cabeza femenina, en el que se ha buscado el contraste, entre el pulido de superficies, con el mero desbastado de otras, para que emerja el rostro, de una sonrisa comunicativa, graciosa en la actitud y de bella expresión.*

Inspirada en una figura de panteón, de cuerpo entero de su profesor Higinio Basterra, quiso también de esta manera, rendirle homenaje.
- *Forma parte de las esculturas en la sala del Museo dedicada al escultor.*

Fotos 3 y 3 bis.



Xamurtasun bila. Ikertzen burua. Bilboko Arte eta Eskulanetan egina.
Buscando la temura. Cabeza de estudio. Artes y Oficios de Bilbao.



Eskultura beraren beste ikuspuntu bat.
Otra perspectiva de la misma escultura.

INDALECIO OJANGUREN «Arrano» argazkilaria.

- Behereko ezker aldean izenpetua.
- Brontzez oratua.
- Neurriak: 56, 46 eta 28 cm.
- Urtea: 1920.
- *Mendigoizale-argazkilarien eta eskultorearen arteko adiskidetasun mina eza-guturik, erabili duen maitagunea somatzen bide da erretratu honetan; eta esatera ausartuko gara.*

Oraindik ere nerabe zelarik, materialtasunetik gora altxatzen bide da be-girada, gailur goren etara amets bila; eta zabal dutako alkandoratik, anatomia dirdaitsu, gazte, hantusteriarik gabekoa ikusten da. Okotz nabarmenaren ir-motasunak, begitartearen goratasunarekin batera, nahimen sendo batez hitz egiten digu.

Hitz batez, obra bihozkorra; enkargu hutsetik gora aisa hegaldatzen dena.

- *Zurezko oinarri apal baten gainean aurkitzen da imajina hau Donostiako Era-kustokian.*

Ik. 4. arg.

INDALECIO OJANGUREN El fotógrafo «aguila».

- Firmado, parte inferior izda.
- Fundido en bronce.
- Dimensiones: 56, por 46 y por 28 cms.
- Año: 1920.
- Dada la entrañable amistad entre el montañero-fotógrafo y el escultor, nos atrevemos a decir, que es uno de los retratos, en el que se trasluce, el cariño con que está tratado.

Todavía adolescente, su mirada, parece elevarse de lo material, para alcan-zar el ensueño de más altas cimas, su camisa abierta, permite ver una anatomía vibrante, joven, sin exageración. La firmeza del prominente men-tón, por la elevación del rostro, habla también de una robusta voluntad.

Una sentida obra en resumen, que trasciende, ampliamente, el mero encargo.

- Se encuentra esta escultura, sobre breve peana de madera, en el Museo de San Sebastián.

Foto N.º 4



Indalecio Ojanguren, «arrano»-argazkilaria, eskultorearen adiskide mina.

Indalecio Ojanguren, el «fotógrafo águila», amigo íntimo del escultor.

MARRAZKIAK

Arkatzez egindako marrazki batzu gordetzen dira. Haur-eite batzuren ikerketa lanak dira. Zenbait aldiz erretratatuaren hizla besterik ez da bilatu; beste batzutan, aldiz, argi-ilunaren kontrastea.

1933ko data daramate.

Garai berekoa da oleoz margotutako anatomi ikerketa bat, gogor eta interresgarria. Eredua bizkarrez agertzen da, eta bereziki landu da besaburuaren ingurua.

Ik. 5, 6 eta 7 arg.

DIBUJOS

Se conservan unos cuantos dibujos a lápiz, que son estudios de expresión en niños. Algunos están hechos buscando sólo el perfil de los retratados, en otros el contraste, entre la luz y sombra en el tres-cuarto.

Están fechados en 1923.

También, y de la misma época, es un recio e interesante estudio anatómico, pintado al óleo. Está el modelo vuelto de espaldas, acusándose fuertemente la zona escapular.

Fotos N.º 5, 6, 7



Haur hizla. Arkatzezko marrazkia.
Perfil de niño. Dibujo a lápiz.



Neskatila burua. Arkatzezko saioa.
Cabeza de niña. Estudio a lápiz.



Oleoz burututako anatomi saioa. Bilboko Arte eta Eskulanetakoa.
Estudio anatómico al óleo. Escuela de Artes y Oficios de Bilbao.

PLAZIDO ZULOAGA


- *Beherean ezkerraldean izenpetua.*
- *Eskaiola patinatua.*
- *Neurriak: 38 eta 25 cm.*
- *Urtea: 1923.*
- *Aipakizun berezirik ez du. Baina Eibarko damaskinatua landu zuen pintore eta industrigizonaren aitari eskainia dago.*

Ik. 8. arg.

PLACIDO ZULOAGA

- *Firmado inferior lateral izdo.*
- *Escayola patinada.*
- *Mide 38 por 25 cms.*
- *Año 1923.*
- *Sin más trascendencia que el detalle anecdótico, de ser padre del pintor, industrial dedicado al damasquinado en Eibar.*

Foto N.º 8



Plácido Zuloagaren erliebea. Ignazio pintorearen aita izan zen, baita Eibarko damasquinatuaren bultzatzaile goren.
Relieve de Plácido Zuloaga, padre del pintor Ignacio y gran impulsor del damasquinado en Eibar.

ELGEZUA-KO PEDRO, eskultorearen aita.

- Izenperik gabe.
- Kaobokiz egina.
- Peanaren gainetik 63 cm. ditu, eta 58 zabal eta 26 sakon.
- Urtea: 1921.
- Mokor bereko oinarrian pausatzen da, ertzak kamuts; eta inguruan moldura bat darama: 17 cm. gora, 40 zabal eta 30 sakoneran.
- la soinerdiko irudia da. Erretratatuaren ezaugarriak nabarmendu dira azkar-ki, xehetasunak azterketa egoki baten ondorioz azpimarratuz. Gorputzaren sendoa agertzen da, eta zabalik dagoen alkandoraz bestaldera, lepezurrak ageri dira.

Gainetik zurgin mantala darama.

- Eskultorearen jabetza zelarik, Donostiako Erakustokiari eskaini zitzaion, hain zuzen ere eskultorearentzako aretoa estrainatzean.

Ik. 9. arg.

PEDRO DE ELGUEZUA padre del escultor.

- Sin firma.
- Realizado en madera de caoba.
- Mide 63 de alto, hasta la peana, por 58 de ancho y 26 cms. de fondo.
- Año 1921.
- Descansa sobre peana del mismo bloque, de bordes romos, con moldura circundante, de 17 de alto, por 40 de ancho y 30 cms. de fondo.
- Figura de casi medio cuerpo. Se acentúan fuertemente, los rasgos del retratado, con un acuse de detalles, fruto de un acertado análisis. Se destaca la fuerte complexión, con prominentes deltoides, así como las vértebras a través de la abierta camisa.

Porta encima un mandil de ebanista.

- Propiedad del escultor, fue donada la escultura al Museo de San Telmo de San Sebastián, en la inauguración de la Sala dedicada al mismo.

Foto N.º 9



Aitari egindako daila honen bitartez irabazi zuen Elgezuak bere Txapelketa lehenengo saria.
Con esta talla de su padre, gana Elgezúa su primer premio en un Concurso.

MARIA KARLOTA LASUEN *artistaren ama.*

- *Ezkerraldeko beheko alderdian izenpetua.*
- *Carrara-ko nabarriz oratua.*
- *Neurriak: 62 cm. gora, 44 zabal, eta 28 sakon; peanak beste 10 cm. dituelarik.*
- *Urtea: 1923.*
- *Marra erdian, eta ilea buruari erantsita, orrazkera bitan erdibitua da, belarri erdi bat agirian dagoelarik. Dena euskaldun etxeko-andreen mototsean amaitzen da.*

Soinerdia ozta iristen du. Soinekoaren xehetasunak alde batera utzi dira, eta arreta zehatz jarri begitartearen modelakuntzan. Oinarri prismatiko bategen eusten du imajina, bi alboetan altzo bana eraiki delarik; eta bi aldeetan, bi hosto apain agertzen dira zintzilik, figura osoa alboetatik beheraino besarkatuz.

Artistaren jabetza zen, baina Elgezuari eskainitako aretora bildu zuen.

Ik. 10. arg.

MARIA CARLOTA LASUEN *madre del artista.*

- *Firmado en el costado inferior lateral izdo.*
- *Realizado en mármol de Carrara.*
- *Mide 62 de alto por 44 de ancho y por 28 cms. de fondo, hasta la peana, que tiene 10 cms. de alto.*
- *1923.*
- *Con un peinado partido en dos, por raya al medio y pegado a la cabeza, deja al descubierto media oreja, terminando en un recogido moño, a la manera de las etxeko-andres vascas.*

Algo menor de medio cuerpo, se ha supeditado la sobriedad de los detalles en el vestido, a destacar la precisión en el modelado del rostro. Termina la escultura en base prismática, con dos resaltes laterales y flanqueada a ambos lados, por dos artísticas hojas pendulatorias, que abrazan, rematando lateralmente la figura, sobre la peana.

Propiedad del artista, quedó integrado en la Sala dedicada a Elgezúa.

Foto N.º 10



Maria Carlota Lasuen, artistaren ama, eta Zaldibarren jaioa.
María Carlota Lasuén, madre del artista, natural de Zaldívar.

ASZENSION ELGEZUA, eskultorearen arreba.

- Izenperik gabe.
- Carrara-ko nabarriz oratua.
- Neurriak: 57 gora, 34 eta 23 cm.
- Urtea: 1923.
- *Nexka gaxte baten irudia da —eskola garaikoa— orrazkera lixo, biste mototsaire bana buruaz bi alboetan.*

Datu soila ez den guztia baztertu da, eredia zehazki, eta ia takigrafikoki, itxuratuz.

Oinarri ezberdina da, zabarki landua izan da; eta kontrastea gaitza da aurpegiaren leunketa alderatzen zaionean.

Sal Telmo Erakustokian dago.

Ik. 11. arg.

ASCENSION ELGUEZUA hermana del escultor.

- Sin firma.
- Realizada en mármol de Carrara.
- Mide 57 de alto, por 34 y por 23 cms.
- Año 1923.
- Representa a una joven adolescente, —época de colegiala—, con un peinado liso, acabado en dos rosetones con lazo, laterales a ambos lados de la cabeza.

Se ha suprimido, todo lo que no sea el dato escueto, preciso y casi taquigráfico, de la modelo.

Termina en base irregular, trabajada a puntero y cuyo graneteado, contrasta con el pulido del rostro.

Se encuentra, en el Museo de San Telmo.

Foto N.º 11



Aszension Elgezua, eskultorearen arreba.
Ascensión Elgezúa, hermana del escultor.

LEON SARASKETA

- Izenperik ez.
- Langaia: eskaiola.
- Neurriak: 36 × 27 × 23 cm.
- Urtea: 1925.
- *Parisen egondako garaian egina. Kopeta zabala erakusten du adiskidearen bustoak, ileak sargune zabalak baititu. Oraindik ere gaztea den gizon bat ageri da, hizla fina, galdegile; eta begirada ere galdekarra, opera kantari baten harroskotasunez.*

Ongienik ordaindu zitzaion lana omen da hau, artistak zionez; orain alar-gun gelditu den erretratatuaren emazteak askotan aitortu baitio eskultorea-ri: «Bustoa gabe, ezin iraun nezake, sekulako laguntasuna eskaintzen dit».

Sarasketa fameliaren jabegoa da.

Ik. 12. arg.

LEON SARASQUETA

- Sin firma.
- Material, escayola.
- Mide 36 por 27 y por 23 cms.
- Año 1925.
- Realizado durante su estancia en París, a su amigo, tiene el busto una amplia y despejada frente, debido a unas acusadas entradas en el pelo. Representa a un hombre todavía joven de fino perfil e inquisidora e interrogante mirada, con empaque de cantante de ópera.

Decía el escultor, que ha sido su trabajo mejor pagado, pues la viuda (en la actualidad), del retratado, varias veces le ha confiado: «No podría pasar sin el busto, me hace singular compañía».

Propiedad de la familia Sarasqueta.

Foto N.º 12



Eskaiolaz, Leon Sarasketaren bustoa.
Busto de León Sarasqueta, en escayola.

ZIRIAKO AGIRRE sendagilea

- Aurrekaldeko behereko eskuinaldean izenpetua.
- Nabarriz egina.
- Benetako izarian baino handixeagoa. Neurriak: 78,5 cm. gora, 58 zabal eta 47 sakon.
- Urtea: 1926. Paristik itzultzean egindako lehendabiziko lana.
- Eibarko Osasunetxe Antihetikoak eskatu zion lan hau, bertako sortzailearen ohorezko goratzarre gisa.

Bere buruz artistaren trebetasunaz mintzo den buru zoragarria da.

Argazki bidez burutu behar izan zuen, nahiz bizirik artistak ezagutua izan. Eite osoa lortzeko lanak izan zituen, halako batez «arrano»-argazkilariak, adiskide onak, artistak aurrera zeraman borroka jabeturik honela esan arte: «Etzak gehiago ikutu: Ezin hobeki zegok orain bere horretan, indartasunez, antzez»... Eta halaxe gelditu zen.

Astakerian puskatu zioten sudurra. Instituzioak eskaturik, eta egileak modelo hutsa igeltso patinatutan zeukanez, brontzez fundi arazi zuten, horrela nabarrizkoa ordezkatzuz.

Horra hor eskaiolazko jatorrizkoa, artistaren jabegoa. Brontzea Eibarko Osasun-Etxean dago.

Ik. 13. arg.

CIRIACO AGUIRRE médico

- Firmado delantera inferior dcha.
- Realizado en mármol.
- Algo mayor que tamaño natural, mide: 78,5 de alto por 58 de ancho y por 47 cms. de fondo.
- Año 1926. Fué el primer trabajo efectuado al volver de París.
- Fue encargado al artista, por el Sanatorio Antituberculoso de Eibar, como homenaje a su fundador.

Es una testa magnífica, que por sí habla del virtuosismo del escultor.

Tuvo que realizarla por foto, aunque conoció en vida al retratado. Le costó el rematarla, con el total parecido, hasta que su buen amigo, «el fotógrafo-águila» Ojangure, consciente de la lucha sostenida por el artista, viéndola a diario, le espetó un buen día:

¡No lo toques más, ahora está perfecta, de impacto, parecido...! y así quedó.

Fue vandálicamente rota la nariz. Por encargo de la institución, y como el autor poseía el vaciado en yeso patinado, se mandó hacer un fundido en bronce, en sustitución del mármol

Original en escayola, propiedad del artista, el bronce en el Sanatorio de Eibar.

Foto N.º 13



Ziriako Agirre. Eibartar sendagilea, eta Eibarko Osasun-Etxe Antihetikoaren sortzaile eta antolatzailea.
Ciriaco Aguirre, médico eibarrés, fundador y organizador del Sanatorio Antituberculoso de Eibar.

HIRUGARREN ADINA

- *Izenperik gabea.*
- *Gaia: harria.*
- *Neurriak: berezko izarikoak, zehazki ezagutzen ez badira ere.*
- *Urtea: 1927 inguruan.*
- *Denboraren iraganak gupidarik gabe dakarren xaharkuntza idurikatzen du busto honek; baina, zoritxarrez, gaur egun desagertutzat eman behar da. Aurrepegiko zimurrak ezin hobeki egituratu dira; masailak gailen dira, belarrondo-ko hezurak nabarmen, eta zainek berek ihes egin nahi bide dute loguneen parean. Begirada nekatua bide da, umila; biziak kolpatutako zakur baten antzerakoa.*

Eskultoreak adierazi nahi zuenaren arauera, oso grafikoa eta biziduna.


Ik. 14. arg.

LA TERCERA EDAD

- Sin firma.
- Material: piedra.
- Dimensiones: tamaño natural, se desconocen con exactitud.
- Año aproximado, 1927.
- Este magnífico busto, representando la decrepitud del inexorable paso del tiempo, está desgraciadamente hoy, desaparecido. Las arrugas en el rostro, están perfectamente estructuradas, pómulos acusados, parietales salientes, hasta las venas parecen querer escaparse a la altura de la sien. La mirada, es una mirada cansina, humilde, diríamos de perro apaleado por los avatares de la vida.

Busto sumamente gráfico y descriptivo de lo que pretende representar el escultor.

Foto N.º 14



«Hirugarren adina». *Harrizko bustoa, gaur desagertua.*
«La tercera edad», busto en piedra hoy desaparecido.

ZUREZKO DAILAKETA

Goi-erliebe bat agindu zitzaion Elgezuari. Eibarko damaskinatu baten inguruan joan behar zuen, parrokijendeak bere erretorari eskainitako opari gisa.

Gerritik gora biluzik ageri den langile bat ageri da, Eibarko herri langilearen sinbolotzat. Apaingarri mailan, hostoak eta adarrak ere ditu lagungarri, harmarrigintzan erabiltzen diren eran. Gaineko aldean, gurutze bat ageri da, eta erlijio liburu batzu.

Ik. 15 arg.

TALLA EN MADERA

Un alto-relieve, se le encargó a Elguezúa, que sirviera de marco, a un trabajo de damasquinado de Eibar, para un regalo de la feligresía a su párroco.

Representa a un trabajador, desnudo de medio cuerpo, que simboliza al trabajador pueblo eibarrés. Se acompaña de motivos ornamentales de flora y hojas en volutas y de forma empleada en heráldica. Por arriba ostenta una cruz y libros religiosos.

Año 1929.

